**EZTABAIDA: EUSKARAREN ETORKIZUNAZ BAIKOR ALA EZKOR? /9**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko urriaren 17a • IV. urtea

127. zenbakia • DOAN BANATZEKOA


**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**





**BEGOÑA ERRAZTI / EA**

*"Gure herria abian dagoenez, etorkizun politikoaren aurrean itxaropentsu nago"* /7

**KIROLA**

**Iñaki Guridi, distantzia luzeko Gipuzkoako igeriketa txapeldun /10**

**Goienka2a**

**Karlos Agirreurreta RIP-eko abeslaria hil zen astelehenean**

**ASTEKO GAIA: ZUNTZ OPTIKOA DEBAGOIENEAN /3**

# GOITB ezin da zuntz bidez ikusi

Gipuzkoako 158.000 etxek (etxeetatik %75ek) zuntz optikoa izango dute 2004ko bukaerarako, Euskaltelek joan den astean jakinarazi zuenez. Gaur egun 30.000 bezero ditu Gipuzkoan Euskaltel enpresak; geroago eta gehiago Debagoienean ere.

Baina debagoiendar askok ez dakitena da, oraingoz, Euskaltelek ez duela GOITB bere zuntz bidezko eskaintzan sartu, eta, kablea kontratatuz gero, GOITB ikusteko aukera galtzen dutela. Euskaltelek agindu du urtarrilerako konponduko duela arazoa.



MONIKA BELASTEGI

## Kontsumo bus-a ibarrera iritsi da

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzaren programa berria da Kontsumo bus-a. EAEko 30 herritan barrena ibiliko da eta atzo Bergarara ailegatu zen. Programaren helburua da gaur egun kontsumitzaileok ditugun eskubideen gaineko informazioa ematea eta prestatzea. Horretarako, bi adituren laguntzaz gain, kontsultarako hainbat ordenagailu ditu autobusak. Bergaraz gain, Arrasatera ere joango da, azaroaren 7an eta 10ean. /6

## Guardia zibilek hartu dute Martin Ugalde Kultur Parkea

Martin Ugalde Kultur Parkearen kontrako operazioa egin zuten atzo, eguena, goizaldean Juan del Olmo epailearen aginduz. Parkea itxita eduki zuten dozenaka guardia zibilek, eta hainbat atxilotu izan ziren. Edizioa ixteko unean zortzi ziren atxilotuak. Martin Ugalde Kultur Parkea kudeatzen duen Buruntzape enpresaren aurkakoa izan da operazioa. Operazioa salatzeko, zapatuan Donostian, Antiguatik irtenda, egingo den manifestaziora joateko dei egin du Kontseiluak. /5

**GARRAIO PUBLIKOA**

### PESA konpainiak kendu egin ditu 11 autobus linea

PESA autobus konpainiak eskaintzen dituen zerbitzuak murriztu egin ditu. Hori dela eta, PSE-EEko batzarkide Paco Garciak salatu egin du, bai autobus konpainiaren baita Gipuzkoako Diputazioaren jokabidea ere. Hain justu ere, orain arte martxan zeuden 11 autobus linea kendu ditu PESAk, gehienak Debagoienekoak. /5


**Indonesiako altzariak**

**Erdi-prezioan!**

**URRETXUn**
Udazken kanpaina
(azaroaren 30era arte)

**Indonesiatik inportaturik, zure etxerako mota guztietako tekazko altzariak**

Ordutegia:
10:00etatik 13:00etara eta
17:00etatik 20:00etara
(astelehenetik zapatura)
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)

**943 72 53 26**
www.lba-antic.com





Erdiko kale 32
ARRASATE
943 79 16 12

GIZONAK
EMAKUMEAK

LUKO

JANTZIAK

Ibai-arteren bazkide


DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • ESKELAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • SAILKATUAK/20 • DENBORA-PASA/21


Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA

# Euskaltelen zuntz bidezko telebista eskaintzatik kanpo dago GOITB

## Euskaltelek agindu du bere eskaintzan sartuko duela, baina oraingoz ez du bete

LEIRE KORTABARRIA

Zuntz optikoa ari da Debagoienean ezartzen…, baina bere eskaintzan hutsune handi bat dago oraingoz: Debagoieneko lekuko telebista, GOITB, ez dago eskaintzaren barne. Kontraesana are sinestezinago egiten da jakiterakoan zuntz optiko zerbitzua emateko kontzesioa duen enpresak, Euskaltelek, hain zuzen ere, beste lekuko telebista batzuk eskaintzen dituela kable bidezko telebista zerbitzuan, baina ez ibar honetakoa. Kontuan hartuta, gainera, GOITBk euskara hutsean emititzen duela, eta Euskaltelek telebista paketean eskaintzen dituen beste kateek –Teledonostik edo Telebilbao kateak, esate baterako– ez dutela euskaraz programaziorik, edo zati bat besterik ez.

Euskaltelek esan du espero duela 2004 urte bukaerarako Gipuzkoako 158.000 etxek zuntz optikoa izatea; tartean, Debagoieneko askok. Hala ere, ibarreko biztanle askok ez dakite GOITB ezin izango dutela kable bidez ikusi. Beste batzuek esan digute ez dutela informazio zehatzik edo egiazkorik jasotzen. Hain zuzen ere, egunotan, eskaintza Aretxabaletan aurkezten dihardu Euskaltelek, eta AED euskara elkarteko kide Nagore Zubizarretak zera dio: "Galdetu nienean, esan zidaten GOITB ikusi ahal izango nuela". Beste aretxabaletar batek esan du: "Esan zidaten GOITB ere ikusteko aukera izango nuela, hori bai, 12 euroko itzultzaile bat instalatuz gero". Beste debagoiendar batzuen arabera, esan zieten GOITB ezingo zela ikusi "ilegala" zelako.

Kontuak kontu, debagoiendarrek oraindik ez dakite GOITB ikusi ahal izango duten zuntz bidez; edo, ezin izango badute, zergatik. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Euskaltelek zer esango duen zain dago.



AITOR URIZAR

Irudian, GOITBk Arrasaten duen egoitzako kontrol-gela.

*Kanpoko lekuko kateak ikusiko dira, baina GOITB ez da Euskaltelen eskaintzan sartzen*

*Euskaltelek ziurtatzen du GOITB ere eskainiko duela, eta espero du urte hasieran izatea*

*Legeak dio udal erabilpeneko kate bat derrigorrez eskaini behar duela Euskaltelek*

### IBARREKO KATEA KENTZEN

Euskaltel enpresak emango dio kable zerbitzua Debagoienari, horretarako kontzesioa irabazi ondoren, 90eko hamarkadan. Horrek esan nahi du Euskaltel izango dela kable zerbitzu emaile bakarra. Iaztik zuntz optikoa sartzen ari da Euskaltel Debagoieneko hainbat lekutan, zerbitzua emateko azpiegitura antolatzen diharduen bitartean. Zerbitzu horren bidez, telefonoa, Internetera konexio hobe eta azkarragoa eta telebista eskainiko ditu. Telebistaren harira dator arazoa.

Izan ere, Euskaltelen oraingo eskaintzak ohiko telebista kate handiak hartzen ditu, baita hainbat kate tematiko eta lekuko telebista ere, baina paradoxikoki, ez du GOITB hartzen. Jende askori ez zaio hori esaten kontratua aurkezten zaionean; beste batzuei esan izan zaie GOITB ez zela eskaintzan sartzen "legez kanpokoa" zelako, eta hori ez da horrela; GOITB beste edozein lekuko telebistaren egoera legal berean dago, hau da, ez dago propio bere egoera erregulatzeko legerik.

Horrek esan nahi du, labur esanda, Euskaltel, zerbitzua eskaintzerakoan, GOITB hartzen zuten etxeetatik ibarreko katea kentzen ari dela, azalpen egokirik eman barik.

### GOITB, DERRIGORREZ ESKAINTZAN

Goiena komunikazio kooperatiba eta Euskaltel iaz hasi ziren elkarrizketetan, GOITB Euskaltelen eskaintzan sartzeko asmoz. Atzerapen berri honen aurrean, Euskaltelek honakoa dio: "Debagoienerako proiektu teknikoa egiten ari gara. Goienari esan bezala, gure asmoa da urte bukaerako edo datorren urte hasierarako GOITBren seinalea hartzea eta gure eskaintzan sartzea. Arazo teknikoak izan ditugu, baina lanean ari gara, eta espero dugu epeak benetan horiek izango direla".

Era berean, Euskal Herriko beste leku batzuetako herri telebistak bai eta GOITB ez sartzeko arrazoiaz galdetuta, Euskaltelek azaltzen du: "Beste leku batzuetan gure sarea lehenago ezarri genuen, eta hango telebistekin akordio batera ere lehenago iritsi ginen. Baina GOITBrekin ere negoziatzen dihardugu".

Euskaltel enpresak azpimarratzen du "lekuko telebistekin konpromisoa" duela, eta gaineratzen du: "Gure asmoa da lekuko telebistak gure eskaintzaren barne sartzea. Hortaz, Goienarekin ere akordio batera iritsiko gara, eta GOITB ere ikusi ahal izango da zuntz bidez".

### AZPIEGITURAK, ARRASATEN

Momentu honetan, Euskaltelek dihardu zuntz optikoa ahalik eta Debagoieneko etxe guztietan sartzen. Baina eman beharreko urrats erabakigarriena izango da emititzeko nodoa edo gunea bukatzea, Arrasaten. GOITB euren eskaintzan sartzeko egin behar dena da ibarreko telebistaren seinalea Arrasateko nodulu horretara gehitzea. Aitor Orobengoa LKSko adituak diosku: "Zuntz operadore guztiak atzeratzen ari dira, eta Arrasateren kasuan, atzerapena handiagoa da oraindik. Ona izango litzateke azpiegitura lehenbailehen bukatzea, GOITB bertan sartzeko".

NORK ORDAINDU LANAK?

### Euskaltel konprometitu zen lanak berak finantzatzera

**Lanen finantzaketa Goienak edo Euskaltelek egin beharko lukeen ere ez dago argi. Hasiera baten, inbertsioa 23.000 eurotan finkatu zuten. Euskaltelek, hasiera batean, eskatu zion Goienari berak ordaintzeko hori. Goienak hori ikusi zuen "euskarazko hedabide bati oztopo" moduan, eta, hurrengo bilera baten, Euskaltel konprometitu zen bera finantzatzera lanak. Lan horiek maiatzean egitekoak ziren.**

EUSKARAZKO KATEA

### Euskaltelek euskararekin duen konpromisoan, hutsunea

**Goienak ulertzen du GOITBk leku logikoa duela Euskaltelen eskaintzan, eta gogorarazten du zelan Euskaltelen oraingo eskaintzan ez dagoen euskara hutseko lekuko hedabide bat bera ere. "Esan genien hori kontraesana zela eurek euskararekin duten konpromisoarekin, eta hala zela onartu ziguten", dio Goienak. Horrez gain, Goienak ez du "logiko" ikusten kanpoko lekuko kateak sartzea, eta ez hemengoa.**

EZ DA ARAZO BAKARRA

### Mankomunitateak dio zuntzaren arazo guztiak landuko dituela

**Mankomunitatea ere jakinean dago zuntz optikoaren sarrera dela-eta sortu diren arazoez. Presidente Inazio Lakuntzak esan digu: "Mankomunitateak badu asmoa gai hori lantzeko. Izan ere, ez da bakarrik GOITB emititzea edo ez; beste arazo batzuk ere badaude. Esaterako, auzoetara ez da iristen, ez eta Debagoieneko herri txikienetara ere. Lantaldea berria da oraindik, baina gai hori jorratuko dugu, ziur".**

LEGEAK DIOENA

### Legeari jarraituz, GOITB nahitaez egon beharko litzateke sarean

**Legeari jarraituz, Euskaltelek derrigorrez sartu beharko luke GOITB Debagoieneko bere sarean, nahiz eta legeak hori hitzez hitz ez esan. Kontua da 1996ko legeak esaten duela zuntz operadoreak kate bat gorde behar duela "udal erabilpeneko telebista baterako". Debagoienaren kasuan, udal guztiek GOITB laguntzen eta sustatzen duten aldetik, udal erabilpenerako kate hori GOITB izan beharko litzateke.**



AINTZANE GARDOKI

Orain dela sei urte lau ikastolek hasitako prozesuari esker sortu da Arizmendi Ikastola, Euskal Herriko ikastola handiena.

# Arizmendi Ikastolak kooperatiba bakar gisa hasi du ikasturtea

*Kirol kamiseta berriak aurkeztu zituzten martitzeneko prentsaurrekoan*

AINTZANE GARDOKI / MIRARI ALTUBE

**Arizmendi Ikastolak kooperatiba bakar moduan eman dio hasiera 2003-2004 ikasturteari. Horren berri eman zuten martitzenean egin zuten prentsaurrekoan. Bide batez kirol kamiseta berriak aurkeztu zituzten.**

Orain sei urte Hezibide barruan eman zitzaion hasiera lau ikastolaren arteko bateratze prozesuari. Hasi berri den 2003-2004 ikasturtean dagoeneko kooperatiba bakarra da Arizmendi. 3.000 ikaslerekin Euskal Herriko ikastola handiena da Arizmendi Ikastola. Hala adierazi zuten martitzeneko prentsaurrekoan.

**SEI URTEKO PROZESUA**

"Pausoz pauso egin dugu prozesua. Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza ikastolek 1997an eman zituzten ikastola bakarrean batzeko lehenengo urratsak. Bigarren mailako kooperatiba sortu genuen, eta egun, Arizmendi Kooperatiba sortu da", esan zuen Arizmendi Ikastolako presidente Mikel Lezamizek. "Bateratze prozesu honekin guztiok irabaziko dugu, onura ekarriko dio-eta gure ikastolari, baita ikastolen taldeari ere, orokorrean", esan zuen Mikel Lezamizek.

*3.000 ikaslerekin Euskal Herriko ikastola handiena da Arizmendi Ikastola*

**EGOITZA NAGUSIA ARETXABALETAN**

Kooperatiba berriak Aretxabaletan du egoitza nagusia irailaren 1a ezkero, Larrin Plazan dagoen Otalora jauregian. 36 lagunek osatzen dute lantaldea, eta bertatik zuzenduko dute kooperatiba.

**KIROL KAMISETA BERRIAK**

Martitzeneko prentsaurrekoan kooperatiba berriko kirol kamisetak aurkeztu zituzten. Kamisetaren diseinua egiteko lehiaketa egin zuten, eta DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek, Batxilergokoek eta Lanbide Heziketakoek hartu zuten parte. Irabazlea Oier Fuentes aretxabaletarra izan zen, eta, horrela, Oierrek egindako irudia dute kamiseta berriek.

# Besaiden 12 hektareako basoa egokitzeko plana egin dute

*Sortu berri den Basoa Fundazioaren lehen ekimena da*

ENEKO AZKARATE

**Eguaztenean aurkeztu zuten Donostian Basoa Fundazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko basoak zaintzeko eta kudeatzeko sortu berri den fundazioa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako basogintza elkarteek bultzatuta sortu dute fundazio hori.**

Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko aldundiek lagundu dute fundazioa sortzen. Ekologia, kultura, gizartea eta ekonomia uztartzen saiatuko da fundazio hori. Izan ere, Kursaalen egindako fundazioaren aurkezpenean bultzatzaileek esandako moduan, "basoaren onura ekonomiko, ekologiko eta sozialak oso ezagunak dira eta jabeen mugak gainditzen ditu. Gizarte osoak jasotzen ditu basoaren onurak".

Basoa Fundazioari laguntzeko modu ugari daude. Enpresa, erakunde eta elkarteak, *Ongileak, Kolaboratzaileak* edo *Kolaboratzaile zehatzak* izan daitezke. Baina banakakoek ere lagun dezakete: *Basozale iraunkorra* edo *Zehatza* bihur daitezke.

**BESAIDEN 12 HEKTAREA**

Fundazioaren lehen ekimena Besaide Egokitzea egitasmoa izango da. Besaide tontorraren inguruan dagoen 12 hektareako basoan garbitzeko eta hobetzeko lanak egingo dituzte. 12.500 zuhaitz txiki landatuko dituzte: urkiak, lizarrak, pagoak eta haritzak. Euskal Mendizale Federazioarekin egindako hitzarmenari esker abiaraziko dute Besaiden zuhaitzak birlandatzeko egitasmo hori. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurrek bat egiten duten mendia da Besaide.




## Gizonezko bat hil da Epelen, auto istripuan

Barakaldoko gizonezko bat hil egin zen istripuan astelehenean, Epeleko saihesbidean, Kanpanzartik gertu. Goizeko 11:30ak aldera gertatu zen istripua. Bi kamioik eta furgoneta batek elkar jo zuten. Ondorioz, furgoneta gidatzen zuen 45 urteko barakaldarra hil egin zen eta beste bi kamioietako gidariak, 40 eta 37 urtekoak, Debagoieneko eskualde ospitalera, Arrasatera, eroan zituzten, hainbat zauri zituztela. Hildakoa suhiltzaileek atera behar izan zuten furgonetatik. Istripuaren ondorioz, errepideko errei bat itxita egon zen ordu batzuetan. /E.A.

# ESK sindikatuko ordezkariek II. Batzar Nagusia aurkeztu dute

*Ibarreko 27 ordezkari egongo dira hil bukaeran egingo duten batzarrean*

AINTZANE IRIZAR

**Astelehenean, hilaren 13an, ESK sindikatuko ibarreko ordezkariek prentsaurrekoa egin zuten Arrasateko udaletxean; hantxe, sindikatuak datorren astean egingo duen II. Batzar Nagusiaren gaineko xehetasunak eman zituzten.**

Ezker Sindikalaren Konbergentziak (ESK) urriaren 24an eta 25ean egingo du II. Batzar Nagusia Bilboko Erakustazokan. Egingo duten batzar horren gaineko azalpenak eman zituzten astelehenean, Arrasateko udaletxean, ESK sindikatuko ibarreko ordezkariek. Juan Jose Azkarate, Yolanda Urmeneta, Juan Ramon Garai, Asun Agiriano eta Ramon Romerok, hain zuzen ere, hartu zuten parte prentsaurreko horretan.

Prentsaurrekoan azaldu zutenez, besteak beste, sindikatuaren ibilbidea errepasatu eta dituzten asmo eta irizpideak azalduko dituzte batzarrean.

**IBARREKO 27 ORDEZKARI BILBON**

ESK-ko 450 ordezkarik hartuko du parte batzarrean; horietatik, 27 Debagoienekoak.

II. Batzar Nagusia ponentzia baten oinarrituko da; 4 zutabe ditu ponentzia horrek: batetik, globalizazioaren gaineko hausnarketa egiten dute; bestetik, Estatuko eta Euskal Herriko egoera sozio-ekonomikoa aztertuko dute; hirugarrenean, sindikatuaren lehentasunen gainean jardungo dute; eta azkenik, zuzendaritza berritu egingo dute.

koma,



Ingeleseko, frantseseko, alemaneko eta italierako eta beste hizkuntza batzuetako **irakasleak** behar dira.

**Curriculumak, argazkia barne, posta arruntaz edo posta elektronikoz bidali**

**Olakua 7 behea • 20560 OÑATI**
943 71 82 08 • Posta-e: cursos@komalingua.com • www.komalingua.com

# Martin Ugalde Kultur Parkearen aurkako operazioa

*Zortzi lagun atxilotu zituzten atzo, Gipuzkoan eta Nafarroan, Buruntzape enpresaren kontrako jardunean*

IRATI AGIRREAZALDEGI

Martin Ugalde Kultur Parkearen kontrako operazioa egin zuten eguen goizaldean Juan del Olmo Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz. Parkea itxita eduki dute dozenaka guardia zibilek, eta hainbat atxilotu izan dira. Edizioa ixteko unean zortzi ziren, hain zuzen ere. Martin Ugalde Kultur Parkea kudeatzen duen Buruntzape enpresaren aurkakoa izan da operazioa. Parke horretan dago duela zortzi hilabete itxi zuten *Egunkaria*-ren egoitza nagusia, baita *Berria*-ren erredakzioa ere.

**ATXILOTUAK**
Operazio horrekin lotuta zortzi lagun atxilotu dituzte Gipuzkoan eta Nafarroan: Jose Mari Sors Xabi Legarra, Mikel Sorozabal eta Mikel Arrizabalaga Donostian, Mikel Azkune, Errenterian, Juan Mari Larrarte Hernanin, Armando Hernandez Tolosan eta Angel Ramon Diez Lizarran.

Arantzazu Fernandez de Arroiabe aretxabaletarra da *Berria*-ko marketin arduraduna. Hark esandakoaren arabera, “duela 8 hilabete gertatutakoaren errepikapena izan da. *Egunkaria*-ren itxieraren jarraipen moduan egin da. Eta *Berria* egunkariari buruz zera azaldu du: “Ez dago prezintorik, atxilotuen materiala eta ordenagailuak eraman dituzte. Beste guztien gauzak ustez ukitu gabe daude”.

Guardia Zibilaren jarduna salatzeko hainbat elkarretaratze izan ziren atzo. Bestalde, *Berria*-ko langileek bilera egin zuten Martin Ugalde parkean; baita Euskararen Kontseiluaren zuzendaritzak ere. Honek bi erabaki hartu zituen: batetik, deialdia egitea gaurko 20:00etarako udaletxe aurrealdeetan elkarretaratzeak egiteko; bestetik, zapatuan Donostiako Antiguatik aterako den manifestaziorako deia egitea.



ARGAZKI PRESS
**Guardia zibilek Martin Ugalde parkeko hainbat egoitza arakatu zituzten atzo goizean.**

# PESAk kendu egin ditu gure ibarrean eskaintzen zituen bus linea batzuk

*PSE-EEko batzarkide Paco Garciak salatu egin du zerbitzu murrizketa*

ENEKO AZKARATE

**PESA autobus konpainiak eskaintzen dituen zerbitzuak murriztu egin ditu 2003ko irailaren 29tik hasi eta 2004ko ekainaren 30era doan aldirako.**

Gipuzkoako PSE-EE alderdia haserre da PESA garraio konpainiak erabaki duelako eskaintzen duen autobus zerbitzua murriztea, Gipuzkoako Diputazioaren oniritziarekin, gainera.

Arrasateko zinegotzi eta Gipuzkoako batzarkide Paco Garciak salatu du murrizketak debagoiendarrei ondorio txarrak ekarriko dizkietela. Paco Garciak salatu duenez, orain arte martxan zeuden 11 autobus linea kendu ditu PESAk ikasturte berriari begira. Horietako batzuk Debagoienekoak dira. Honako hauek, hain justu: Donostia-Arrasate, astelehenetik egubakoitzera, 07:30ean; Arrasate-Donostia, astelehenetik egubakoitzera, 10:20an; Eskoriatza-Arrasate-Oñati, astelehenetik egubakoitzera, 19:15ean; Bergara-Oñati, astelehenetik egubakoitzera lan egunetan, 18:35ean, eta 19:35ean; eta Bergara-Oñati, astelehenetik egubakoitzera lan egunetan, 19:10ean.

**KONTUAK ESKATU**
Erabakiaren berri ohar baten bitartez eman die udalei eta Foru Aldundiari PESA konpainiak. Paco Garcia batzarkide sozialistarendako oso larria da Diputazioak murrizketa hori onartu izana. Errentagarriak ez zirelako ezabatu ei ditu PESAk zenbait zerbitzu, eta hori ez da onargarria, Garciaren ustez. Gainera, erabakia are larriagoa da, gure ibarrak dituen komunikazio arazoak kontuan izanda.

PSE-EEk hala eskatuta, Lurralde Antolaketa diputatu Jose Ramon Belokik garraio publiko zerbitzuaren murrizketaren inguruko azalpenak eman beharko ditu datorren eguenean, hilaren 23an, Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Sozialistek, bestalde, eskatuko dute kendu dituzten zerbitzuak beste autobus konpainia batek bete ditzala.

**PESAk bertan behera utzitako autobus lineak**

| LINEA | EGUNAK | ORDUA |
|---|---|---|
| **Donostia-Arrasate** | Astelehenetik egubakoitzera | 07:30ean |
| **Arrasate-Donostia** | Astelehenetik egubakoitzera | 10:20ean |
| **Eskoriatza-Arrasate-Oñati** | Astelehenetik egubakoitzera | 19:15ean |
| **Bergara-Oñati** | Astelehenetik egubakoitzera lanegunetan | 18:35ean |
| **Bergara-Oñati** | Astelehenetik egubakoitzera lanegunetan | 19:35ean |
| **Oñati-Bergara** | Astelehenetik egubakoitzera lanegunetan | 19:10ean |
| **Bilbo-Donostia** | Martitzenetik egubakoitzera | 09:30ean |
| **Donostia-Eibar** | Domeka eta jaiegunetan | 17:30ean |
| **Eibar-Elgoibar-Donostia** | Domeka eta jaiegunetan | 15:30ean |
| **Zumarraga-Legazpi** | Domeka eta jaiegunetan | 20:25ean |
| **Legazpi-Zumarraga** | Domeka eta jaiegunetan | 20:55ean |

KONTSEILUREN KOMUNIKATUA

## Euskararen Kontseiluak dei egin du zapatuko manifestaziora joateko

Espainiako Auzitegi Nazionalak aginduta eguen goizaldean guardia zibilak euskalgintzako elkarte eta euren arduradun batzuen aurkako operazioa egin du. Zortzi atxilotuen artean Kontseiluko zuzendaritzako bi kide daude: Mikel Arrizabalaga, Elkarlanean Fundazioaren ordezkaria eta Joan Mari Larrarte *Berria*-rena. Kontseiluaren zuzendaritza urgentziaz batzartu da eguen goizean eta erabaki hauek hartu ditu:

1. Kontseiluaren balorazioa publiko egitea prentsaurreko baten bidez eguenean bertan. Agerraldi horretan gaurko operazioa euskalgintzaren kontrako erasotzat hartu da eta une hauetan egoera honi aurre egiteko bidea elkarlanean egin behar dela azpimarratu da.
2. Egubakoitz honetan, urriaren 17an, herri guztietan elkarretaratzeak deitzea arratsaldeko 8etan.
3. Zapatuan, urriaren 18an, arratsaldeko 5etan Donostiako Antiguako auzotik abiatuko den *Gora Euskal Herria Euskalduna. Bai Euskarari* manifestazioa deitzea.
4. Astelehenean, urriak 20, eguerdiko 12:30ean *Egunkaria*-ko langile ohiek Donostian hilero egiten duten elkarretaratzean parte hartzeko dei egitea.
5. Eguazten arratsaldean, urriak 22, Martin Ugalde Kultur Parkean *Ateak zabalik* ekitaldi bat egitea arlo sozio-politiko, instituzional eta kulturako eragileekin.
6. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari bilerak eskatuko zaizkie egoera baloratzeko eta irtenbideak emateko.

Bazkide guztiei erabaki hauen berri ematen dizuegu lehenbailehen jakinaren gainean egon zaitezten. Zeuen kideei ere jakinaraztea eskatuko genizueke, egubakoitzeko kontzentrazioak eta zapatuko manifestazioa ahalik eta jendetsuenak izan daitezen.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL



Araba etorbidea 3
ARRASATE
Tel.: 943 71 25 00

ANTZUOLA

## Badihardugurekin hitzarmena egin du Udalak, ahozko hizketa jasotzeko

Urriko osoko bilkuran erabaki zuen Udalak Badihardugurekin hitzarmena egitea. Deba ibarreko euskara elkarte horrek ahozko hizketa jasotzeko proiektua aurkeztu zion Udalari, eta hori aurrera eramateko hitzarmena egitea proposatu.

Datozen bi urteotan egingo dute lan hori, eta guztira 8.400 euro emango dizkio Udalak Badihardugu elkarteari.

Orain arte herriko nagusiei egindako grabaketak jaso eta sailkatuko dituzte; grabaketa gehiago ere egingo dituzte. /A.I.

ARAMAIO

## 'Lotsa-Gabe' antzezlana Aramaion izango da Txirritola Egunean

Txirritola Euskara Elkarteak *Lotsa-Gabe* antzezlana ekarriko du Txirritola Eguna ospatzeko. Vaiven Producciones taldearen lana da, Ana Pimentaren ideia originalean oinarrituta eta Felipe Lozak eta Garbi Losadak idatzitakoa. Besteak beste, 2002ko Antzerki saria jaso zuen lan horrek.

Sexu heziketa du berbagai; gazteei sexologiaren inguruan sortzen zaizkien zalantzak lantzen ditu (lotsak, beldurrak, anorexia, homosexualitatea…).

Bihar antzeztuko dute *Lotsa-Gabe*, 22:00etan hasita, kultura etxean. /U.M.

ELGETA

## Zazpi bizilagun berri, eta 1.000 biztanletik gora ditu Elgetak

Joan den astean zazpi bizilagun berri erroldatu ziren herrian; guztiak pakistandarrak. Beraz, Elgetak 1.001 biztanle ditu orain. Kopuru horrekin herriaren egoera politikoa eta ekonomikoa aldatu egingo dira. Batetik, erakundeetatik laguntza handiagoak jasoko dituzte; bestetik, Udalerako zazpi zinegotzi beharrean bederatzi hautatu ahal izango dira baldin eta datozen hauteskundeetan biztanle kopuruari eusten bazaio. Errolda berriko datuak jasota ikusiko da hori. / I.A.




MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Kontsumitzaileok hezteko Kontsumo bus-a Bergaran dago

Atzo, eguena, heldu zen eta gaur iluntzeko 19:30ak arte San Martin plazan egongo da. Kontsumo bus-a Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzaren ekimena da, eta helburua da herritarrak kontsumoarekin lotutako gaien gainean heztea eta informatzea. Hori horrela, autobusera hurbiltzen diren herritarrei kontsumitzaile gisa dituzten eskubideen berri emango diete, baita eskubide horien alde lan egiten duten instituzioen berri ere. Jende ugari hurbildu da autobusera; goizez umeak batik bat; izan ere, gaztetxoenei egokitutako azalpen eta tailerrak ere ematen dituzte ekimenaren arduradunek. Victoriano Gallastegi alkatea eta Arantzazu Amosarrain Ongizate Saileko zinegotziak ere bisitatu dute Kontsumo bus-a. /M.B.

ARRASATE

## Sexologiaren gaineko ikastaroa antolatu dute emakume gazteendako

Gaur egungo eredu sexuala aztergai izango dute Arrasaten, Sexologia Zerbitzuak antolatutako ikastaro baten. Emakume gazteei zuzendutako ikastaroa da eta azaroan hasi eta abenduko aurreneko astelehenean bukatuko da. Astelehenero egingo dituzte eskolak, estreinatu berri duten Emakume Txokoan.

Ikastaroaren helburuak honako hauek dira: emakume izatearen sexualitateak duen garrantziaz ohartaraztea; eredu sexual kultural nagusia aztertzea eta horrek emakumeen eta gizonen izatean duen eragina aztertzea; estereotipatutako urratsen hausnarketa; eta ulermen jarrerak garatzea.

**PARTE-HARTZE ZUZENA**

Hori guztiori lantzeko, hiru eduki nagusi aztertuko dituzte: sexualitatea, sexua, erotika eta identitate kontzeptuak; sexualitatearen historia (Freud, Hite, Sherfey, Master y Johnson…); eta gozamenaren kontzeptuak. Eta metodologia aldetik, ikasleen parte-hartze zuzena bultzatuko dute.

**LEHENBAILEHEN DEITU BEHAR**

Ikastaroak plaza mugatuak izango ditu; hortaz, interesa duenak lehenbailehen eman beharko du izena, betiere, azaroaren 6a baino lehen. Horretarako honako telefono honetara deitu beharra dago: 943 71 41 39. Astelehenetik egubakoitzera 16:00etatik 20:00etara dei daiteke; eta martitzenetan eta egubakoitzetan 11:00etatik 14:00etara. Ikastaroa doan izango da. /U.M.

**Zertzelada**

**Hiru eduki izango ditu: sexualitatea, sexua, erotika eta identitate kontzeptuak; sexualitatearen historia; eta gozamenaren kontzeptuak**

OÑATI

## Kiroldegiaren inguruan aparkalekuak egiteko lanak, enkantean

Oñatiko Udalak enkantera atera ditu Zubikoa kiroldegiaren inguruan aparkalekuak egiteko lanak. Hain zuzen ere, osasun etxearen atzeko aldean egingo dituzte aparkaleku horiek; 65 bat autorendako tokia egongo da.

Hasiera baten, Udalaren asmoa zen kiroldegia handitzeko proiektuarekin batera lur azpiko aparkalekuak egitea. Hainbat arazo zirela eta, azkenean, atzera bota zuten aukera hori eta osasun etxearen ondoan egitea erabaki zuten.

Etxegarai-Zelaia arkitektoek egin dute proiektua eta 330.743 euroko aurrekontua dute lanek. /AINTZANE IRIZAR



A.I.

**Osasun etxearen atzeko aldean egingo dituzte aparkalekuak.**

ARETXABALETA

## Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatuko dute bihar kirol etxean

Gipuzkoako Karate Federazioak antolatutako Karate Txapelketa jokatuko dute bihar, zapatua, 16:30ean, kirol etxean. Norgehiagokan 14 urtetik gorako karatelariek hartuko dute parte eta baliagarria izango da gerriko horitik marroira bitartean mailaz igotzeko.

Txapelketan Aretxabaletar bi ibiliko dira lehian: Kerman Colino eta Ander Hernandez, hain zuzen ere. Biendako biharkoa izango da lehenengo txapelketa ofiziala. Hortaz, gehienbat esperientzia hartzera joango dira. /A.L.

ESKORIATZA

## Mendi bizikleta ibilaldia egingo dute oraingo domekan Eskoriatza inguruan

Aspaldi hasi ziren mendi bizikleta ibilaldia antolatzen Eskoriatzan, eta aurten 14. aldiz egingo dute. 09:30ean aterako dira Herriko Plazatik eta Bolibar auzorantz joko dute; Aitzorrotz, Bentafria, Jarindo, Albiña, Kurtzeta eta Asentzio menditik pasatu eta gero herrira itzuliko dira. Guztira 43 kilometroko ibilaldia izango da.

Parte-hartzaileek hainbat zerbitzu izango dituzte, gainera: medikua, asegurua, aldagela eta dutxak, hamarretakoa, elastiko bana eta luntxa. Eta opariak zozketatuko dituzte. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Teknologia berrien gaineko ikastaroa egin dute herriko 14 lagunek

Mendikoik, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako Institutuak, 2000. urtean jarri zuen abian Mendinet programa. Geroztik biztanle gutxiko herrietan barrena dabil Mendinet autobusa. Gatzagako 14 lagunek autobus horretan izan dituzte teknologia berriekin lehenengo harremanak. Interneten zelan sartu, zelan informazioa aurkitu eta posta elektronikoa zelan erabili ikasi dituzte, besteak beste. Herriko gazteak eta helduak oso gustura ibili direla esan digute. /A.G.



ARGAZKI PRESS

# *Begoña Errazti*

EUSKO ALKARTASUNA ALDERDIKO PRESIDENTEA

## “Gure herria martxan dagoenez, etorkizun politikoaren aurrean itxaropentsu nago”

KONGRESURAKO HAUTESKUNDEAK

**“Martxoko Kongresurako, hauteskundeei begira PPk eta alderdi zentralistek euskaldunok eta Euskal Herria erabili nahi izango gaituzte kanpaina egiteko”**

IBARRETXE PLANA

**“EA gobernuan dago eta Ibarretxek gobernuaren izenean aurkeztu du plana. Guk planari hainbat ekarpen egin dizkiogu eta proposamen batzuk agertzen dira bertan”**

Begoña Errazti Eusko Alkartasuna alderdiko presidentea alderdikideen aurrean hizketan izan da aste honetan bertan Arrasateko Alkartetxean. Egoera politikoaren aurrean itxaropentsu azaldu da Errazti eta esperantza mezu hori helarazi die jarraitzaileei. Ibilbide politikoaz eta gaur egungo Euskal Herriaren egoeraz egin dugu berba Begoña Erraztirekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Nola sartu zinen politikan?**

Politika gure eta gizartearen parte bat izanik logikoa da interesa izatea, eta niri betidanik interesatu izan zaidan gaia da. Zorionez, oso herri asaldatu eta nahasian jaio gara, eta horrek eragina du. Familian abertzaletasuna marka bat izan da eta politikarekiko pendiente bizi izan naiz urte askoan. Ondoren, nigan konfiantza jarri zuten Nafarroako Parlamenturako aurkezteko eta horrela sartu nintzen instituzionalki politikan.

**Emakume izateagatik zailtasun gehiago izan duzu politikan?**

Emakumeok, oro har, zailtasunak ditugu bizitzako arlo guztietan, nahiz eta askotan ez nabaritu. Baina emakumea izateagatik lana bikoiztu egiten da bai arlo pribatuan baita publikoan ere. Emakumeok etxetik kanpo lan eginez gero, gizonezkoekin alderatuz karga bikoitza daukagu. Politikan ez da hain normala alderdietako zuzendaritzetan emakumeak egotea. Nire kasua oso berezia da, lehenengo emakumea bainaiz historian gure herrian alderdi bateko presidente kargua duena. Hala ere, pertsona bezala kontsideratuak izaten eta emakumeok ordezkaritza politikoa lortzen saiatu behar dugu. Alde horretatik, EAn hori bultzatzen dugu: Senatuko bozeramailea emakumea da, baita Kongresukoa eta Exekutibako bozeramailea ere.

**Arrasateko Alkartetxean izan zara aste honetan. Zein mezu helarazi zenien bertaratutakoei?**

Momentu konplikatuan egon arren, itxaropentsu gaudela adierazi nien. Orain dugun koiunturan aurrera joateko eta tunel honetatik ateratzeko unea da. Lan garrantzitsuak eta gogorrak ditugu aurrean, seguru aski giro politikoa gogortu egingo delako. Batetik, Martxoko Kongresurako, hauteskundeei begira PPk eta alderdi zentralistek erabili nahi izango gaituzte euskaldunok eta Euskal Herria kanpaina egiteko. Bestetik, orain arte bezala ETAk eta bere munduak lehengoan dirau eta horrek egoera zailtzen du. Izan ere, indarkeria abertzaletasunaren aurkako argudio bezala erabiltzen da; beraz, Euskal Herriaren eskubide nazionalen kontra. Egoera nahasi horretan, propagandaren alderditik eta mediatikoki gauzak gogortu egingo dira. Baina era berean, gobernu planaren inguruan Parlamentuan sortuko den eztabaida demokratikoaren bidez gure herriaren nahia plazaratuko da, eta zaila izango zaie horren aurka joatea PP eta PSOEri. Garapen ekonomikoa, indarkeria eta horrelako mila aitzakia erabili arren, zentralismo espainiarra defendatzea da sakon-sakonean euren helburu nagusia.

**Hala ere, itxaropentsu zaude.**

Bai. Askok pentsatuko du nola esan dezakedan horrelakorik besteak mehatxuka ari direnean autonomien kontra, Eusko jaurlaritzaren kontra, Ertzaintzaren kontra... Baina burutazio hori egin dut, pentsatuta gure herria inoiz baino gehiago martxan dagoela. Orain dela bi urte hauteskunde programan autodeterminazio eskubidea sartu genuen, eztabaida ireki eta gizartean legitimitatea lortuko zuela pentsatuta, eta horrela izan da. Orain, konpromiso elektorala daukagu eta erantzuten ari gara. EAJkoek ez zuten hori pentsatu eta kontra azaldu ziren, baina denborak guri eman digu arrazoia. Prozesu autodeterminista gaude eta gehiengoak esan du herri bat garela, nazio bat eta eskubide guztiak ditugula, betiere demokratikoki, giza eskubideak errespetatuta. Euskal Estatua lortzea da EAren helburu nagusia.

**Udazken politikoa bero ei dator. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Bero, dudarik gabe. Espainiako botoa Espainiarentzat lortzeko erabili nahi izango gaituzte. PPk eta PSOEk ez dute irtenbiderik proposatzen, indarkeriaren arazoari aurre egiteko, adibidez. Alderantziz, gure herria eta gure eskubide nazionalak indarkeriarekin nahasten dituzte. Euskaldunon arteko lehia sortzen saiatuko dira eta horretarako boterea erabiliko dute, gainera; eta horrek guztiak giro politikoa berotu egingo du.

**Ibarretxe Plana aurkeztu da orain dela gutxi. Zer deritzozu plan horri?**

Eusko Alkartasuna gobernuan dago eta Ibarretxek gobernu horren izenean aurkeztu zuen plana. Guk planari hainbat ekarpen egin dizkiogu eta gure proposamen batzuk agertzen dira bertan. Urriaren 25ean aurkeztuko den testu artikulatuari ere ekarpen batzuk egin dizkiogu, eta jarraituko dugu egiten. Gobernuko partaide garen neurrian, gurea ere bada plan hori. Testu artikulatu hori lege berri bat da. Euskal Autonomia Erkidegotik egindako burujabetzarako legea da, baina beste lurraldeei begira egindakoa. Izan ere, EArentzat ezinbestekoa da lurraldetasuna. Hau da, jakitea gure herriak Iparraldean eta Hegoaldean zati ezberdinak ditueIa, egoera juridiko diferenteetan. Gure nahia erakunde komunen sorrera ahalbidetzea da.

**Martxoko hauteskundeetan koalizioan aurkeztuko zarete EAJrekin?**

Oraindik ikustear dago. Zenbait hauteskundetan koalizioan agertu gara. Gauzek horrela jarraitzen badute, Espainiaren aurrean indarrak koordinatu egin behar direla uste dut. Madrilen ikusi behar da herri hau oso nekatuta dagoela euren jarrerarekin.

**Zein egoera politiko bizi du Debagoienak?**

Ibarra Euskal Herriaren isla dela esan daiteke. Martxan dagoen herria da, betiere tokian tokiko arazoak dituena, eta horiek konpondu egin behar dira. Eusko Alkartasunarentzat helburu nagusiak normalkuntza politikoa eta pazifikazioa dira, berdin herririk txikienean zein hirietan.

**Abertzaletasuna bi adarretan banatzen du askok: EAJ eta Batasuna. Non kokatzen da, beraz, EA?**

Orain arte egon den lekuan. Gure espazio ideologikoa euskal sozialdemokrazia da. Normaltasun politikoak espektro ideologiko ezberdinak ekartzen ditu. Argi eta garbi agertu gara independentismoaren eta Euskal Estatuaren alde, horretarako bide demokratikoak erabilita. Beti salatu ditugu epeltasunak baita indarkeria ere, onartezina izateaz gain, gure herriaren kontra doalako.

**Inoiz EAJren barruan ikusiko dugu EA?**

EA proiektu bat da. Sorreratik urte asko pasatu dira eta zuzendaritzako jende asko sekula EAJn egon gabeak gara. Bata bestearen barne sartzeko kontu hori aspaldikoa da. Gainera, herri normalizatu batek espektro ezberdinak izan behar ditu, eta gu zati bat gara.

**EAko buru zaren aldetik Debagoieneko arazo nagusien aurrean zein irtenbide proposatuko zenituzke?**

Arazoak asko dira eta bati bakarrik irtenbidea ematea ezinezkoa zait. Garraioaren arazoa, esaterako, jakin badakit larria dela, baina ez daukat hori konpontzeko bide zehatzik. Komunikazioaren alorrean zenbait proiektu daude Eusko Jaurlaritzatik. Hala ere, gauzak ez dira egun batetik bestera konpontzen. Kultura ekonomiko eta politikoa aldatu egin behar dugu eta pentsatu inguru baten garapena denon esku dagoela.

# Zabalik



GURUTZE ARIZNABARRETA

## *Itxi zabalik!*

**Itxiak gara! Neurri handiagoan edo txikiagoan, baina funtsean, denok gara itxiak! Itxiak, gure etxeko ateak bezala, lehengo baserrietako ateak ez bezala. Beldur gara. Gauza berrien beldur, lapurren beldur, sentitzen duguna adierazteko beldur, aurrera egiteko edo ez egiteko beldur, porrotaren beldur, errealitatearen beldur... Eta ondorioz, dena giltzapetzen dugu, ondasunak, ideiak, sentimenduak, pertsonak, ilusioak... Eta horrela gaude gero, itxita! Ondoan dagoenak zer dioen entzuteko ere itxiegi. Eta entzunda ere, aditu ezinda, horretarako baldintza askotxo eman behar baitira. Nork dioen adibidez, ideiek ez dute berdin balio batzuen eta besteen ahotan. Horrek itxi ez ezik itsu ere egiten gaitu. Hortaz, itsuegi ere bagaude merezi duenak benetan merezi duela konturatzeko, sinisteko.**

**Horrekin itxitasun eta itsutasun guzti horrekin apurtu nahi nuke nik gaur, zutabe honen izenburuak dioena aldarrikatu. Diskurtso itxi eta antzuetatik ihes egin nahi nuke, ideia berriak kanporatzeko eta barneratzeko bideak eraiki, sentimenduak eta pentsamenduak libre utzi. Dena aske etorkizun hobe baten esperoan, dena libre aterik gabeko mundu berri bat eraiki nahian. Gure itxitasunek fosildu ez gaitzaten ireki, eraiki eta sortu! Eta horretarako, lehenik eta behin gure ateak zabaltzen ikasi beharko dugu eta gero, gero zabalik mantentzen saiatu eta ondokoari zabaltzen irakatsi. Eta orduan, orduan, igual, ez dugu sarrailen beharrik izango, eta orduan, igual, munduko maratila guztiak izango ditugu eskura. Orduan, Arrasate aldean esango luketen moduan, ateak *itxi* bai, baina *zabalik itxiko ginukez!***

# Gutunak

## Ehizarik ez

Argi utzi nahi dugu ez zaigula axola ehizaren inguruan ika-mika sortzea, azken batean gai horrexeri buruz hitz egitea baita hemen gauza garrantzitsuena. Gaur egun, XXI. mendean gauden honetan, arrazoi ugari ditugu kirol-ehizari eta jarduera horren inguruan sortzen den guztiari ezezko biribila emateko. Azken batean denon ondarea osatzen duten animalia errugabeen heriotza, eta denonak diren mendien zikinkeria zein berunaren ondoriozko kutsadura besterik ez ditu eragiten jarduera horrek.

Zaila da ehizaren aurka agertzea, ehiza hori bizibidea denean. Herri indigenek egindako animalien hilketa gertakari naturala da eta, gure lehen munduko herrietan ezagutzen dugun ehizak ez bezala, biziraupena du oinarritzat. Ehiza hori eta gurean egiten dena ez datoz bat, lehenbizikoa berdinen arteko borroka baita, nolabait ere. Ez baita gauza bera arkuarekin eta geziekin edo zerbatana eta antzekoekin ehizatzea, edo mira teleskopikoa duen irismen handiko errifle batekin edo errepikagailu batez hornitutako eskopeta batekin ibiltzea. Dibertigarria izango litzateke, gero, usoek granadak eraman eta erabiliko balituzte, esate baterako.

Gaur egun egiten den ehizaren helburua ez da elikadurak osatzen duen oinarrizko premiari erantzutea, ez baita jateko hiltzen, dibertsio hutsagatik baizik. Horrela, kirol-ehizak garai bateko ehizak gure arbasoentzat zuen esanahia zikindu egiten duela esan dezakegu, argi eta ozen.

Ehiztari asko naturatik urrun bizi dira, eta Ama Lurrarekiko sentipenik gabeko kaletar hutsak dira. Okerragoa da, halere, ehiztari horietako askok darabilten antropozentrismoa, harro-harro baitaude untxi, txoritxo edo beste edozein animalia izateko zorigaiztoa izan duten biktima errugabeak hiltzean oinarritutako beren aisialdi suntsigarriarekin. Jarduera hori ez da kaltegarria ehizaren biktimentzat bakarrik, naturarentzat ere bai, kutsadura akustikoa, kartutxoak nonahi, beruna, zaborra, eta abar baitakartza berekin.

Ehiza-garaian zenbait animaliak hiltzeko arriskua izaten dute, baina ez haiek bakarrik, arrisku hori baserritar eta mendizaleek ere jasaten baitute, eskopetari askok ez baitituzte betetzen bideen eta etxebizitzen ondoan utzi beharreko legezko distantziak. Kokoteraino gauzkate heskaiak eta mugak ehizarako postu bezala erabiltzeko duten ohiturarekin. Eskopetariek egiten dituzten beste gehiegikeria asko aipatu genitzake: fruta lapurtzea; etxe-abereei tiro egitea; animalia babestuak hiltzea (mozoloak, katamotzak edo basoilarrak, adibidez); alanbre-hesi eta baratzak hondatzea; trafiko-seinaleak tirokatzea; ehiza-garaian mendian dabiltzanak mehatxatzea... Ez dugu "txikikeria" horietan sakondu nahi, politikariei eta eskumeneko agintariei ondorengo puntuak betetzeko eskatu baizik:

- Ehizaren luzamendua, animalia-populazioei buruzko errolda/azterketa fidagarririk osatu artean, eta jendaurreko eztabaida antolatzea, jarduera horren egokitasunaren inguruan.
- Luzamendurik ezartzen ez den bitartean, behin eta berriro urratzen diren arren indarrean dauden arauak betetzeko eskatzen dugu.

PITER ENCINAS
Debagoiena

## Omico: diskriminazio sindikalik ez

Lantegi honetako langileok bizi dugun egoera tamalgarria salatu beharrean aurkitzen gara. Zuzendaritzaren aldetik etengabe jasan behar izaten dugun jarrera autoritarioari, orain, langile baten aurkako erasoa gehitu behar diogu. Langile hau kalitateko teknikaria izateaz gain lantegiko ordezkari sindikala da, eta zuzendaritzak bere lanpostua desagerrarazi eta katean birkokatzea erabaki du. Birkokatze hau, kalitate politikaren aldaketaren ondorioa dela argudiatu badigute ere, langileok badakigu langile honek sindikatu mailan egiten duen lanaren ondorioa dela. Desagertuko den lanpostua gainera, lantegian beharrezkoa dela deritzogu.

Eraso eta diskriminazio honen erantzuleak gaur zuzendaritza organoan dauden Felix Ambrosio, Javier Suarez eta Iñigo Arregi dira. Jakin bezate, Omico-ko langileok ez gaudela erabaki totalitario eta diskriminatzaile gehiago jasateko prest eta are gutxiago gure sindikatuko delegatuaren aurkako erasoak badira.

Egoera hau salatzeko, astelehenean 13:00etan kontzentrazioa egingo dugu lantegiaren aurrean.

OMICO LANTEGIKO LAB
Arrasate

# Hemeroteka

## Punk onena, konbikzioaren ahotsa

Bizitza groteskoa dela, edo behintzat paradoxikoa, hori guztiok dakigu. Karlos Mahomaren erantzungailuak hari mezu bat ixtera gonbidatzen gaitu; hala ere, maitasunezko milaka mezu horiek dagoeneko ez dute hartzailerik: bizitzak ihes egingo dio Karlosi Enamorado de la Muerte-ren ahapaldien artean, RIPen abesti enblematikoenetako bat, 80ko hamarkada hasierako punk talde subertsiboarena.

Txerrak eta Portuk –hura ere hildaegurra ematen zioten base erritmikoari, Yulek gitarra astintzen zuen eskumutur mugimendu etengabeekin, punteatze barik, hori jebiari uzten zioten; eta bitartean, Karlosek bortizki apurtzen zuen ahotsa airearen kontra. RIPek ez zuen melodiatzen, RIPek transmititu egiten zuen, eta Karlosen eztarriak, haren bekozkoak eta begiradak osatzen zuten ezarritakoaren aurkako estanpa gordinena. Izan ere, Karlosek taula gainean beldurra ematen zuen. Bueno, hark, haren ahots emariak, haren testuek (*Kaos, Brigada criminal, No hay futuro, Antimilitar, Escoria, Odio a mi patria, Ultima generación*) eta garai hartako ingurune antisozialak. Ez zen iraultzarik sortu klima hartatik, baina sortu izan balitz, 80ko hamarkada hasierako gogo eta konbikzio gogorrarekin bakarrik izango zen.

90eko hamarkada erdialdean Karlos Bilbora joan zen. Superrean elkartzen ginen. Beti umore onean. Hala ere, azken hilabeteak ez ziren onak izaten ari Karlosendako. Arazo familiar eta pertsonalek –bizitzako arazoak azken baten– eta ezbehar fisikoren batek zelanbaiteko angustia eta egonezin egoeran sumindu zuten. Lagunek kezkatzen gintuen Karlosek, baina une txarrak gaindituko zituen esperantza genuen. Ezin izan da, heriotzaren jainkoak eraman egin du. Baina geratzen zaizkigu haren bizitza intentsoa, pertsona bera, diskoak: *Zona Especial Norte* (1984), *No te muevas* (1987) eta *Hiesari aurre egiten!!* (1995). Zure milaka lagunen izenean, besarkada bat, motel.

PABLO CABEZA
Gara (2003/10/15)

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## *Eztabaida*

Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko III. Soziolinguistikako Inkesta aurkeztu du. Euskararen egoeraren argazki panoramikoa lortzeko, hizkuntza-politiken eraginkortasuna neurtzeko eta aurrera begira zein neurri hartu behar diren zehazteko balio duen tresna da inkesta hori, edo bai bederen bere emaitzak. Baina ondorioak aztertuta zein etorkizun aurreikusten zaio euskarari? Modu baikorrean ala ezkorrean begiratu behar diogu euskaldunok hizkuntzaren eta hiztunon geroari?

# Euskararen etorkizunaz baikor ala ezkor zara?

## *Euskararen etorkizunaren gaineko zalantzak*



IÑAKI AKIZU
Oñatiko Udaleko euskara teknikari laguntzailea

Soziolinguistikako 2001eko Inkestaren emaitzak aztertuta, euskararen etorkizunaren gaineko hainbat zalantza sortu zait niri:

1. Euskal Herriko biztanleen %25 da euskalduna. Nola da posible lau pertsonatik hiruk euskararik jakin ez eta euskaltegiak krisian egotea, ikasle berriak erakartzeko izugarrizko zailtasunekin?

2. EAEko datuek diote hiztunak irabazten ari garela, tendentzia positiboa dela, baina datuak sakonago aztertuta hiztun berri gehienak erdal elebidunak direla ikusten dugu. Hau da, gazteleraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak. Nola eragingo dugu euskararen erabileran, euskaldun berriak hankamotz badatoz?

3. Nafar euskaldunak %10 dira, euskararen erabilera %6koa, orain hamar urte bezala, aurrera ezin egin, egoera berez larria. Orain, ordea, Nafarroako Gobernua eraso bortitzean dute, bitarteko guztiak jarri ditu euskararen aurrerapausoak mozteko oso ongi landutako estrategiaren barruan. Euskalgintza ahul dago, egituratzeko zailtasunekin eta eraso uholdeari ezin erantzun egokirik eman. Euskararen ofizialtasuna lurralde zati batera mugatuta eta euskararen normalizaziora bideratzen ziren diru eskasak egunez egun gutxituz doazela. Etorkizun beltza dute nafar euskaldunek... 2.006ko inkestak zer dioen ikusiko dugu.

4. Iparraldean aldapan behera jarraitzen du euskarak, hiztunak galduz abiada bizian, euskara gero eta gutxiago hitz egiten da, ezagutza ofizialik gabe... badirudi ala ere zerbait mugitzen hasi dela iparraldean gizartearen kontzientziazioaren eta mobilizatzeko gaitasunaren aldetik. Badirudi galera prozesua moteltzen hasi dela, lortuko ote da egoera arriskutsu honi buelta ematea?

Euskararen etorkizunaren gaineko zalantzak nagusi dira datu hauek guztiak aztertuta, positiboak izateko arrazoiak badaude, baina kezkatzeko eta lanerako arrazoiak ez zaizkigu falta. Argi daukadan gauza bakarra da ez gaudela lokartzeko moduan, eta gai honetan gizartea ez dut oso bixi sumatzen.

**“EAEko euskal hiztun berriak erdal elebidunak dira, gazteleraz hobeto moldatzen direnak”**

## *Euskararen aldeko konpromisoaren beharra*



AINHOA ARIZABALETA
Euskaltzalea

Euskararen etorkizunaren aurrean jarrera baikorra eta ezkorra azaldu ditzaket aldi berean. Euskararen alde lan egiteko dagoen gogoa edozein baikor jartzeko modukoa da, baina Gobernuaren partetik jasotzen diren erasoen aurrean nola ez egon ezkor?

Euskara zatituta dago, ez da Euskal Herri osoan ofiziala, eta horren isla dira, besteak beste, soziolinguistikako azken inkestaren Iparraldeko emaitzak. EAEn, zorionez, D eredua hedatuta dago ikastetxe gehienetan, baina Nafarroako egoera, esaterako, oso bestelakoa da, hizkuntza zatiketa dela eta euskararen gaineko datuak oso kezkagarriak dira. Egoera hori aurre egiteko hizkuntza politika egoki bat beharrezkoa da, euskara Euskal Herri osoan ofizialtzat duen politika linguistikoa. Ofizialtasunaren aldarrikapena, beraz, ezinbestekoa da euskararen aldeko borrokan.

Hezkuntzaz gain, gizarteko gainontzeko alorrak ere pixkanaka euskalduntzen joan behar gara. Izan ere, nori ez zaio gertatu nonbaitera joan eta oztopoak jarri dizkiotelako gazteleraz hitz egitera pasatu beharra? Horren adibide dira, adibidez, lantoki asko eta asko. Oinarrizko hezkuntzatik gorako ikasketak, Lanbide Heziketa bera edo karrera unibertsitarioak askok gazteleraz egitera behartuta ikusi du bere burua. Justizian eta administrazioan berez euskaraz egiteko eskubidea izan behar genukeen arren, edozein paper betetzera goazela edo epaiketa baten aurrean gaudela hizkuntza beti izango da gaindi ezineko hesia. Osasun zentroetan sendagile askorekin ezin dugu euskaraz hitz egin.

Beste adibide garbi bat komunikabideena da, dauden apurrak jasotzeko trabak jartzen badizkigute... Ikusi besterik ez dago Euskaldunon Egunkariarekin egin zutena. Dudarik ez daukat hizkuntzaren aurkako erasoa izan zela.

Oztopo horiek guztiak gainditu ahal izateko Euskal Herriko biztanle guztiok hartu behar genuke hizkuntzarekiko konpromisoa eta dagokionari indarra eginez, euskara bultzatu. Baina konpromiso hori ez dugu euskaltzaleok bakarrik hartu behar, baita politikoek ere.

**“Ofizialtasunaren aldarrikapena ezinbestekoa da euskararen aldeko borrokan”**

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

*Euskadi burujabe izango balitz hobeto ala okerrago biziko ginatete?*

## *Gora eta Behera*

### EUSKAL TXIRRINDULARIAK

Ikusgarriak dira aurtengo Munduko Txapelketan euskal txirrindulariek lortu dituzten emaitzak, eta azken urteetan ematen ari diren maila, baina zorionak eta aipamen berezia merezi dute oinarrizko taldeetan, isilean, ezinbesteko lana egiten duten pertsona guztiek.

### SENTSIBILITATE FALTA

Gizarteari zerbitzu garrantzitsu bat eskaintzen ari diren oinarrizko kirol elkarteek, babesa eta laguntza eskatzerako orduan, gure bailarako kooperatiba eta enpresa askotatik jasotzen duten sentsibilitate falta.



ASIER MUXIKA
Aretxabaletako Udaleko kirol teknikaria

## *Koplak*

### *Aita Santua*

Aita Joan Paulo bigarren horrek
aurten 25 urte.
Hainbeste izan zitezkeenik
inor gutxik zuen uste.

Vatikanora heldu zenetik
bete da mende laurdena.
Kristau jendeak goraipatu du
Karol Wojtylan izena.

Bost kontinente, mila bidaia
izan da bere bizitza.
Mundu osora zabaldu nahian
Jaungoiko jaunaren hitza.

Bide luzean ezagutuak
ditu argi ta itzala.
Aurrerantzean behar du eta
jainkoak gorde dezala.

Aita santua osasunean
aspaldi gainbehera doa.
Eta pentsatzen hasiak dira
beraren ondorengoa.

Joan Paulok paper garrantzitsua
jokatu arren elizan.
Zuek formalak izanagatik
guztiz santuak ez izan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Barrukoak, itsaso zabalean nagusi

## Iñaki Guridi, distantzia luzeko Gipuzkoako igeriketa txapeldun

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Distantzia luzeko igeriketa txapelketako probak amaitu-ta, Oñatiko Iñaki Guridi izan da maila absolutuan Gipuzkoako txapeldun. Lau probatan hartu dute parte igerilari oñatiarrek. Bestalde, Bergarako igerilari gaztetxoak fin ibili dira haurren mailan.**



GOIENKARIA

**Igeriketa taldeko hainbat kide. Goian: Iban Perez, Tiago Gonçalvez, Iñaki Guridi, Jon Cantero eta Juan Cruz Kortabarria. Behean: Mikel Maiztegi, Idurre Elortza, Ihanire Urteaga, Ane Billar eta Jesus Cantero.**

Joan zen irailaren 21ean amaitu ziren aurtengo distantzia luzeko igeriketa txapelketako probak. Emaitza guztiak batuta Oñatiko Aloña Mendi Kirol Elkarteko igeriketa saileko Iñaki Guridi maila absolutuko Gipuzkoako txapelduna da, oraindik junior mailakoa bada ere.

Gipuzkoako Txapelketa lau probak osatzen dute, guztiak itsaso zabalean egin beharrekoak: Getaria-Zarautz zeharkaldia, Deba-Mutriku zeharkaldia eta Donostian Pasealeku Berrikoa eta Badiakoa.

Zeharkaldi horietan Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako igerilariak gehiengoa izan arren, horiez gain, Kataluniakoek, Madrilgoek, Errioxakoek, Aragoikoek eta Kantabriakoek ere jardun zuten.

Getaria-Zarautz zeharkaldia izan zen jendetsuena. Dagoeneko klasiko bihurtu den proban, guztira 700 igerilarik hartu zuten parte. Tartean ziren 23 oñatiar eta sei bergarar. Aloña Mendiko igeriketa saileko presidenteak, Placido Ruizek, ez-federatu moduan 1:03:03 denboran egin zuen Getaria eta Zarautz arteko zatia.

Iñaki Guridi lehenengo izan zen Deba-Mutriku zeharkaldian eta gainerako hiru probak ere postu onean amaitu zituen.

Getaria-Zarautz proba eta Donostiako Badiako zeharkaldia Barakaldoko Jonathan Florenciok irabazi zituen, Pasealeku Berrikoa, berriz, Logroñoko Daniel Barriok.

Gipuzkoako Txapelketako sailkapen orokorrean, aldiz, Aloña Mendiko Iñaki Guridiren atzetik Esnal zarauztarra eta Easoko Caballero sailkatu ziren.

Aloña Mendiko itsaso zabaleko igeriketa taldea 12 igerilari federatuk osatzen dute, baina zeharkaldi horietan federatu gabeko hainbat debagoiendarrek ere hartu dute parte.

**FESTA**

Bihar, zapatua, urriak 18, Gipuzkoako Igeriketa Federazioak denboraldi amaierako festa ospatuko du Tolosan. Bertan, Gipuzkoako distantzia luzeko txapeldunari, Iñaki Guridiri, dagokion saria emango diote, eta prestatzaile, teknikari eta igerilari aipagarrienak ere sarituko dituzte.

**HAURRAK**

Bestalde, Debagoieneko igerilariek oso lan ona egin dute haurren mailan 600 eta 800 metroetako distantzietan. Bergara Kirol Elkarteko Nielka Ibarguren lehenengo izan zen mutiletan eta Ana Balentziaga, berriz, hirugarren nesketan.

Igeriketak, beraz, badu zalerik ibarrean.



## Beteranoen errugbi torneoa Garagartzan

Arrasateko Errugbi Taldeko beteranoek lagunarteko torneoa antolatu dute. Arrasateko Herensugeek Marbellako talde bat eta Frantziako Archivald ekipoa gonbidatu dituzte. Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko da hiruko torneoa Garagartzako zelaian.

Baina guztia ez da kirola izango. Izan ere, Marbellakoek gaur Aramaion afaria izango dute sagardotegian, eta torneoa amaitutakoan, guztiek Txalaparta elkartean afalduko dute.

## Kirolabur

**KARATEA/**ARETXABALETA

Bihar, urriak 18, zapatua, karatea sustatzeko Gipuzkoako Txapelketa jokatuko da Aretxabaletako kiroldegian. Arratsaldeko 16:30ean hasita gizonezkoen eta emakumezkoen *kata* eta *kumitea* izango dira proban jarriko dituzten modalitateak. Gipuzkoako Karate Federazioak antolatu du txapelketa eta bertan 14 urtetik gorako karatekek hartuko dute parte.

**BIZIKLETA/**ESKORIATZA

Mendi bizikleta ibilaldia egongo dute oraingo domekan Eskoriatzan. Plazatik 09:30ean abiatuta 43 kilometroko ibilbidea egingo dute partaideek: Bolibar, Aitzorrotz, Bentafria, Jarindo, Albiña, Kurtzeta eta Asentzio zeharkatuko dituzte. Antolatzaileek 300 txirrindularitik gora izatea espero dute. Izena proba hasi aurretik eman beharko da plazan bertan, eta parte hartzeko kaskoa ezinbestekoa da.

**PILOTA/**ELGETA

Sei pilotari euskaldunek lehen aldiz jardungo dute pilota irlandarreko munduko txapelketan Irlandan. Erdiko mailetan jokatuko dituzte partiduak euskaldunek. Sei pilotarion artean Xabier Ubera elgetarra dago. Lehen aldia du Uberak mota horretako txapelketa batean, eta beste bost pilotariekin batera ahalik eta lan txukunena egiten saiatuko da.

**MENDIA/**ARETXABALETA

Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarrak sari bat jaso du Poprad-eko (Eslovakia) Nazioarteko Mendiko Film Jaialdian. Epaimahaikoen ustez, espedizio film onena izan da Euskal Telebistarendako Iñurrategik egindako *Annapurna: Udaberrian negu* lana. Ez da lan horrekin Iñurrategik sariren bat eskuratzen duen lehen aldia.

**FUTBOLA/**DEBAGOIENA

Preferente mailako ibarreko taldeek sei jardunaldi jokatu dituzte eta Mondra lehen tokian dago. Bergara da hirugarren eta Aloña Mendi eta Aretxabaleta bederatzigarren eta hemezortzigarren dira hurrenez hurren. Datozen partiduak Mondrak eta bergarak zapatuan 16:30ean jokatuko dituzte kanpoan, eta domekan, ordu berean, Ibarran Aretxabaleta eta Aloña Mendi izango dira aurrez aurre.



Podiuma

# Angel Ibarluzea |IGOR ASTARLOAREN MANAGERRA|

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Igor Astarloa txirrindulari ermuarra munduko txapeldun izan den honetan, askok ez dakite hari bultzada emanez elgetar bat ibili dela. Lehengusu Angel Ibarluzeak gaztetatik jarraitu du Igorren ibilbidea eta egun ere haren gidari den aldetik, dominaren zati bat Angelena da.**



I.A.

Igor Astarloaren manager lanak egiten ditu lehengusu Angel Ibarluzeak.

**Garai batean txirrindularitzan ibili zinen. Gaur egun, berriz, txirrindulari garrantzitsu baten lehengusu eta managerra zara.**

Ni zortzi urtez ibili nintzen. Lehenengo kadeteetan, gero gazteetan eta amateur mailan azkenik. Orain, berriz, txirrindularitzan jarraitzen dut, baina Igor Astarloaren manager. Betidanik elkarrekin ibili gara eta beti lagundu izan diot.

**Mundialera joan aurretik gomendio berezirik eman zenion Igorri?**

Joan den astean mezu bat bidali nion esanez proba irabazi zezakeela baldin eta kontzentratzen bazen; jakin banekien buruz argi joanez gero lortuko zuela, eta nire aurreikuspenak bete egin dira.

**Nola jarraitu zenuen domekako mundialeko proba?**

Telebistaz ikusi nuen zuzenean, eta oso urduri egon nintzen. Izan ere, banekien Igor nola zegoen eta zer lortzeko gauza zen.

**Modu berezian ospatu zenuen garaipena?**

Emaztearekin eta umearekin etxera joan, ardo botila on bat ireki eta lasai ospatu nuen, jakinean nengoen-eta Igorrek Kanadatik deituko zidala. Domeka gauean egin nuen berba Igorrekin eta pozik zegoen oso, urduri eta emozioz beteta. Esan zidan arrazoia nuela bidalitako mezuan esandakoarekin eta dominaren zati bat nirea zela gaineratu zuen.

**Igorren lehenengo zuzendaria izan zinen, ezta?**

Bai, garai batean zuzendari jardun nuen eta orain Igorren paper kontu guztiez arduratzen naiz. Igorren eginbehar nagusia pedalei gogor eragitea da-eta.

**Garaipen hau lan handiaren fruitua izan da. Txirrindularitzako karrera luzean Igor Astarloak etapa gogorrak ere bizi izango zituen inoiz, ezta?**

Gauza asko izan ditu kontra. Lasterketak irabazi arren amateur mailan inork ez zuen taldean nahi. Gero Anton Ormaetxearen bitartez Italiara joan zen eta bertan oso jende onarekin elkartu da. Hemen aurkitu ez zuen laguntza aurkitu du han.

> "Kontzentratuta joanez gero, banekien mundiala irabazteko gauza zela eta aurreikuspenak bete egin direnez, oso pozik gaude"

> "Nik ez nuen txirrindularitzan laguntzarik izan, baina Igorrek jende ona aurkitu du, eta datozen bost urteotan aurrean ibiliko da"

**Txirrindularitzarekiko zaletasuna familiatik datorkizue lehengusuoi.**

Bai, gure osaba txirrindularia zen, Askasibar, eta familiaren alderdi horretako lehengusuak txirrindularitzan ibili gara. Ni neu, Oskar lehengusua ere Igorrekin ibili zen gaztetan bizikletan, eta hark ere pozik hartu du Igorren garaipena. Izan ere, guztiontzat ez ezik, inguruan ditugun guztiontzat izan da saria, eginiko lan gogorraren ordain.

**Zu bizikleta gainean ibiltzen zinenetik hona asko aldatu dira gauzak?**

Lehen, jende gehiago pasatzen zen profesionaletara. Orain, mundu mailako kirolean krisi handia daga; txirrindularitzan, zer esanik ez. Maila handiko taldeak desagertu egin dira aurten.

**Igorri nolako etorkizuna ikusten diozu?**

Nik Igor Astarloa izaten jarrai dezan desio diot. Nik Elgetan ez nuen laguntzarik eta aukerarik izan, baina Igorrek duen okasioa aprobetxatuz gero, datozen bost urteotan tropelean aurrean ibiliko dela uste dut.

# Xabier Alustiza rallysprinteko txapeldun

## Orobengoa izan zen lehen debagoiendarra

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Joan den zapatuan Aramaioko *rallysprint*-aren bigarren edizioa jokatu zen Azpiko Racing taldeak antolatuta. Antolatzaileek uste baino partaide gutxiago izan dira proban: 24, hain zuzen ere. Horietatik hiru debagoiendarrak. Helmugan Xabier Alustiza izan zen lehena.**

Partaideak gutxi izan baziren ere, autozale ugari hurreratu ziren Aramaiora proba ikusiz arratsaldea pasatzera. Antolatzaileek aurreikusi zuten gidari kopurua baino askoz txikiagoa izan zen zapatuan irteera tokian. Izan ere, egun berean Urbasako Igoera jokatu zen, eta hori izan liteke partaide kopuru eskasa egoteko arrazoi nagusia. Guztira, 24 gidari izan ziren, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoak.

Ibarran hasi eta bertan amaitu zen 26 kilometro inguruko ibilbidea 24 partaidetatik 17k baino ez zuten bukatu. Lau zatitan bereizitako bideak Arriola, Etxaguen eta Gantzaga zeharkatu zituen.

Amaieran, lehenengo postuan Xabier Alustiza azpeitiarra geratu zen, bigarren tokian Txema Uzkudun elgoibartarra eta hirugarrenean Markinako Luis Mari Azkune.

**DEBAGOIENEKO GIDARIAK**

Partaideen artean hiru debagoiendar izan ziren: Arrasateko Huerta eta Orobengoa eta Aretxabaletako Aranzadi. Aranzadi eta Orobengoa 11. eta 13. postuetan sailkatu ziren hurrenez hurren. Huertak, ordea, ez zuen zorte handirik izan, autoak su hartu zuen-eta bigarren kanporaketan; beraz, proba bertan behera laga behar izan zuen..

Antolatzaileak gustura azaldu dira lasterketak izandako harrerarekin: batetik, pilotuak pozik geratu direlako eta bestetik, ikusle asko izan zirelako. Emaitza ikusita datorren urtean berriz ere *rallysprint*-a antolatzeko asmoa azaldu dute Azpiko Racing-ekoek; hirugarren edizioa izango da hurrengoa.

**Sailkapena**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Xabier Alustiza | 18:07:02 |
| 2. | Txema Uzkudun | 18:28:14 |
| 3. | Luis Mari Azkune | 18:31:90 |
| 4. | Gorka Ezenarro | 18:41:94 |
| 5. | Jon Gonzalez | 18:43:84 |
| 6. | Garikoitz Ulazia | 18:43:92 |
| 7. | Iñigo Alberdi | 18:49:13 |
| 8. | Kike Perez | 19:04:62 |
| 9. | Iñaki Sarasola | 19:41:63 |
| 10. | Fran Covo | 19:58:96 |
| 11. | Joxe Aranzadi | 20:11:23 |
| 12. | Iñaki Barrero | 20:13:23 |
| 13. | Igor Orobengoa | 20:39:73 |
| 14. | Iker Arrillaga | 20:44:65 |
| 15. | Aitor Besga | 21:30:77 |
| 16. | Josetxu Gezuraga | 21:36:52 |



GOIENKARIA

Guztira 24 auto izan ziren baina 16 gidarik amaitu zuten proba.



Vitoria-Gasteizko kalerik komertzialena
el Boulevard de Vitoria-Gasteiz




**RENAULT Kontzesionarioa**

# AUTOBERRI

San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472
ARRASATE

# SARRERA DOAN

## Astebururako plana zabal-zabalik

**Eguenetan,**
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
**Amagoia Lasagabaster**

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*



# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko urriaren 17a

Kultura eta aisialdia

Urriaren 17tik 24ra


# KARLOS AGIRREURRETA R.I.P.



**Karlos Agirreurreta RIPeko abeslariaren bat-bateko heriotzaren albisteak ilundu egin du aste hau. Bilboko etxean aurkitu zuten RIPeko abeslariaren gorpua joan den astelehenean, 44 urte zituela; eta Euskal Herri osoan, baina bereziki jaioterrian, Mondragoen, samin handia sortu zuen albiste horrek. Agur esan digu belaunaldi askorendako punkaren ikur batek, baina batez ere lagun on batek.**

LEIRE KORTABARRIA

Gizon maitekorra, amultsua, lagun ona, beti irribarre bat zuena ezagun zein ezezagunarendako... Horrelako hitzak sarri entzun ditugu aste honetan, RIP taldeko Karlos Agirreurreta *Mahoma*-ren lagun, jarraitzaile, taldekide... izan zirenen ahotan. Zuzenean ezagutzen ez zutenen artean ere marka handia utzi zuen Karlos Agirreurretak: RIP taldeko ahotsa eta irudia zen, eta Euskal Herriko punk mugimenduan ezinbesteko erreferentzia izan zen Arrasateko taldea.

Lagun asko zituen, bai, musikari mondragoetarrak, eta hala ikusi zen joan den eguaztenean, jaioterrian, Arrasaten izandako hileta elizkizunean. Aldez aurretik, Karlosen adiskide askok esan zuen ez zirela elizara joatearen lagun; hala ere, jende asko inguratu zen San Joan Bataiatzailearen parrokiara. Eliza beteta egon zen, eta jende asko kanpoan geratu zen: Biona tabernako kantoirantz eta Herriko Plazarantz hedatzen zen multzoa. Kanpoan, bere kintoak, berarekin ikasitakoak, gazte denborako koadrilakoak, punk sasoiko jendea, ezker abertzalekoak, herriko musika taldekoak... Donostia, Gasteiz, Lekeitio, Elorrio eta Bilbotik etorritako *rockero zaharrak* ere bazeuden. Izen ezagunen artean, Hertzainak taldeko Gari eta bateria jotzaile Txanpi; Su ta Gar taldekoak; Marino Goñi, Gor diskoetxekoa; Jabi Destruye RIPen ekoizlea...

**OMENALDIA ETZI, BESAIDE MENDIAN**

Besaide mendian omenaldi ekitaldia antolatu diote lagunek *Mahoma*-ri. Etzi izango da, domeka, 12:00etan. Besaiden zabalduko dituzte Karlos Agirreurretaren errautsak. Sasoi bateko kontuak eta pasadizoak gogoratzeko aukera izango da hori. Bestalde, azaroaren 26an omenaldi kontzertua antolatu dute, Vulpes taldearen berragerpena dela-eta, eta Karlos Agirreurretarendako eta RIP taldearendako omenaldi bihurtuko da ekitaldi hori.

*Portu* RIPeko baxu jotzailea joan zen bezala joan zaigu orain Karlos. Baina bere indarra geratzen zaigu: bere ahotsarena, RIPen abesti eta diskoetan, baita oholtzatik kanpo bizitzan erakutsi zuen indarra eta kemena ere. /14









AZALA: IÑAKI ITURBE / IRUDI NAGUSIA: IÑAKI ITURBE, JOSEBA VALLESEN ARGAZKIAN OINARRITUTA / ARGAZKIAK: 1, JOSEBA VALLES; 2, 3, 4, IKOR KOTX

**MUSIKA/ RIP TALDEKO JUL ETA TXERRA BOLINAGA ANAIEKIN EGON GARA, KARLOS 'MAHOMA' HIL ETA GERO**

### JUL ETA TXERRA BOLINAGA, RIP TALDEKO GITARRA ETA BATERIA JOTZAILEAK

# *"Portu hil zenean zalantza handiak izan genituen, baina dagoeneko RIP bukatu da"*

IKER BARANDIARAN

**Julek eta Txerrak kolpe handia hartu dute. Orain dela lau bat urte Portu hil zen, eta aste honetan Karlos hil da. Elkarrekin bizi izan dituztenak gogora ekarrita, hunkitu egiten dira, baina badakite aurrera egin behar dutela. RIPen bukaera dela iragarri dute, baina badituzte beste musika proiektu batzuk.**



I.B.

**RIP taldeko Bolinaga anaiak, Jul eta Txerra, hazten ikusi dituen Biona taberna esanguratsuaren aurrean.**

**RIP geldi zegoenetik, sarritan ikusten zenuten elkar?**

Txerra: Ni neu Julekin sarriago egoten naiz, batez ere, familiako kontuengatik. Bestela, azkenaldian Karlosekin telefonoz egoten nintzen. Azkenengo aldiz kontzertu baten egin genuen topo, orain dela zazpi bat hilabete.

Jul: Kontzertuak egiten ibili ginen sasoian, askotan elkartzen ginen, baina joan den urtea ezkero, gelditu ginenetik, ez horrenbeste. Karlos Bilbon bizi zen, Txerra Gasteizen eta ni Arrasaten. Karlosek jai zuenean Arrasatera etortzen zen. Uztail bukaeran ikusi nuen azkenekoz.

**Halako ezbeharrik gertatu ezean, RIPekin jarraitzeko asmoa zenuten?**

Tx. eta J.: Talde moduan abesti berriak egiten ez. Baina inoiz oso gustuko genuen jairen baten jotzeko ateak zabalik egon dira beti. Aukera hori ez dugu ukatu.

**Azkenengo sasoian, RIPekin jarraitzeak ez dizue sentimendu kontrajarririk piztu?**

J.: Ez dakit zer esan... Egia da dagoeneko hitz batzuetan ez dugula sinisten. Hitzak orain dela 20 urtekoak dira eta gu aldatu egin gara. Horregatik, dagoeneko ez genituen hainbat kantu jotzen.

Tx.: Agian, kanpotik ikusita RIPek kontzertuak egiten jarraitzeak kontrajarria ematen zuen, baina laurok elkartu izan garenean, izugarrizko energia genuela ikusi dugu, eta eszenatokian oso gustura geunden.

**Karlos hil eta gero, RIP bukatu dela esango zenukete?**

Tx. eta J.: Bai, zalantza barik.

J.: Portu hil zenean zalantza handiak izan genituen, baina orain argi dugu.

**Zuek biok oraindik borroka bat irabazteko daukazue: *No te muevas* eta *Zona Especial Norte* diskoen eskubideak berreskuratzea...**

Tx.: Karlos zen gai horren ardura handien hartu zuena. Gainera, orain, Karlosen heriotzaren ondorioz, Suicidas diskoetxeak RIPen disko gehiago salduko ditu. Ez da bidezkoa!

J.: Orain dela urte batzuk, Suicidas diskoetxeak dirua eskaini zigun, baina guk ez dugu dirurik gura. Bi diskoen jabetza eskuratu gura dugu. Buru-estimu kontua da. Aukera bakarra da epaitegietara joatea. Karlosi errelebua hartu beharko diogu. Lan hori nahiko utzita daukagu, eta merezi du berriro lantzea.

**Bolinaga anaien proiektu berria The Meas izango da?**

J.: (Barreak). Oraindik ez dago argi, baina badago zerbait. Abesti berri batzuk grabatu ditut, eta besteei eman dizkiet, ikas ditzaten. Hala ere, The Meas izenarekin edo beste batekin ez dugu kontzertu askorik egingo, ez da hori gure asmoa. Gurago dugu noizbehinka jo eta ez gu ezta ikusleak erre.

Tx.: Evaristorekin egindako proiektu horrekin oso ondo pasatu dugu, eta gainera, haren hitzek konpromisoa dute. Hori, guretzat, oso garrantzitsua da, eta proiektu hori erabat gustuko dugu.

**Betidanik oso umilak izan zarete eta ez duzue onartu gura izan RIPek izan duen garrantzia. Bada hori onartzeko garaia...**

J.: Aspaldian taldeari iraganean baino askoz garrantzi handiagoa eman zaio. Egia esan, 80ko hamarkadan ez genuen halako izenik.

Tx.: Egia esanda, egunkariek gutaz esan duten guztiak harrituta utzi gaitu. Guk lehen ez genuen horrela bizi izaten. Hala ere, egia da batzuendako erreferente izan garela, eta asko pozten gaitu.

J.: 90eko hamarkada bukaeran egin genuen buelta itzela izan zen. Hainbeste urteren ondoren, ez genuen halako jendetzarik espero, hainbeste gazte... Autografoak eskatu zizkiguten, eta hori ez doa gurekin, horretara ez gara inoiz ohituko.

**80ko hamarkada oso intentsua izan zen. Zer da sasoi horretatik gelditu zaizuena?**

J.: Batez ere, hain ondo pasatu izana.

Tx.: Sasoi hartan sistemarekin eta beste hainbat gauzarekin apurtzeko jarrera genuen. Hura oso garrantzitsua izan zen, eta asko ikasi dugu.

J.: Bestalde, oso urte basatiak izan ziren, eta lagun asko bidean gelditu dira.

Tx.: Orduko taldeok abesten genuena benetan bizi genuen, ez zen itxurazkoa. Eta horrek bere ondorioak ekarri ditu.

**Noiz eta zelan ezagutu zenuten Karlos?**

J.: Txerra eta biok moto-krosa ikustera joaten ginen, eta Karlosek txapelketa askotan hartzen zuen parte. Azkenean, elkar ezagutu genuen. Gero, Karlos Doble Cero taldearen kontzertuetara joaten hasi zen, eta gure txofer bilakatu zen. Motorrak eramateko furgoneta bat zuen, eta hura erabiltzen genuen.

**Zer egin zuen Karlosek hasierako abeslari Mallabi ordezkatzeko?**

J.: Askok ezagutzen dute istorio hori. Mallabi soldadutzara joan zen, eta, beste abeslari bat behar genuenez, Karlos hartu genuen. Mallabi bueltatu zenean, Karlos aukeratu genuen.

Tx.: Izugarrizko ahotsa zeukan eta eszenatokian indar handia zuen. Lehenengo entseguan txundituta utzi gintuen. Egia esanda, aukeraketa egitea zaila izan zen, baina guk uste dugu onena izan zela. Gurekin abestu aurretik, kontzertuetan, bateriaren atzean egoten zen eta zera oihukatzen zuen: "Sex Pistols-en *Dios salve a la reina* jo!".

J.: Gu biok Arrasate Musikalen ikasiak ginen, baina hark ez zuen aurrekaririk. Ahotsa eta indarra berezkoak zituen hark.

**Karlos zelan definituko zenukete?**

Tx.: Indar handia zuen lagun bat, oso irekia, beti laguntzeko prest zegoena. Oso dibertigarria, baita oso burugogorra ere.

J.: Harekin berba eginez gero, edonor konbentzitzen zuen. Horretarako izugarrizko gaitasuna zuen.

**Harekin pasarte berezirik bizi izango zenuten, ezta?**

Tx.: Behin, Puertollanon, kontzertu baten teila batekin burua ireki zioten. Polizia Nazionalak atxilotu egin gura zuen, abestu zituen hitzengatik. Udaltzainek, ostera, ospitalera eraman gura zuten. Udaltzainek eskola baten sartu zuten, eta Karlosek leihotik ihes egin zuen.

*"Karlos gure txoferra zen, eta lehenengo entsegutik txundituta utzi gintuen"*

*"Karlosek moto-kros txapelketetan hartzen zuen parte; halakoetan ezagutu genuen elkar"*

*"The Meas proiektua hor dago; abesti berri batzuk grabatu ditugu, eta baliteke kontzertuak egitea"*

**KONTZERTUAK/ JAM ARETOA**

# Harrera onari eusteko asmoz

11. URTEURRENEKO OSPAKIZUNEN ERANTZUN ONARI EUSTEA ESPERO DU JAM ARETOAK URTE BUKAERARA ARTEKO EGITARAUAREKIN

LEIRE KORTABARRIA

**Bere 11. urtemugako ospakizunen arrakastatik urte bukaerara bitarteko ekitaldietara, Bergarako Jam aretoak ez du atsedenik hartzen, eta horren erakusgarri da datozen hilabeteotarako antolatu duen egitaraua, denetariko musika estiloetako emanaldiez beteta.**

“Oso parte-hartze ona egon da 11. urtemugako emanaldietan”, diosku Jam aretoko arduradunetako batek, Dabidek. Bere esanetan, batez ere techno estiloko jaialdiak izan zuen arrakasta handien; izan ere, disko jartzaile ospetsuak etorri ziren Bergarako aretora.

Harrera on horrek datozen ekitaldiotan jarraituko duela espero dute Jam aretokoek. Oraingoz, urri eta azaro osorako egitaraua antolatu dute. Astero-astero dago emanaldi bat baino gehiago, eta, beti bezala, hainbat estilorendako tokia egongo da.



JAM

Eraso taldeak disko berria aurkeztuko du Jam aretoan.

**EUSKAL DOINUAK HIL AMAIERAN**

Datorren egubakoitzean, urriak 24, No Use For a Name, Bigwig eta Irish Car Bomb taldeen kontzertua egongo da. Asteburua osatzeko, Ill niño, Spineshank eta Chimaira taldeen emanaldia egongo da zapatuan, hilaren 25ean. Hila bukatzeko, aldiz, Euskal Herrian egindako doinuei txanda emango die Jam aretoak; izan ere, Eraso taldeak azken diskoa aurkeztuko du eta Sorkunek azken kontzertua eskainiko du. Biak hala biak hilaren 31n arituko dira Jamen.

**WEBGUNEA**

Azarorako beste hainbat emanaldi antolatu dituzte Jameko arduradunek. Besteak beste, Machine Head, Napalm Death, Paradise Lost, Tijuana in Blue… taldeek bisitatuko dute Bergarako aretoa.

Aurreikuspen gehienak bete egiten diren arren, batzuetan, talderen batek emanaldia bertan behera uzten du aldez aurretik. Horien berri zabalagoa jasotzeko, *www.salajam.com* webgunea bisita dezakezue, eta azken orduko oharrak irakurri.

## Azaroko emanaldiak

**AZAROAK 1, zapatua**
Symphony X + Headline

**AZAROAK 7, egubakoitza**
Machine head

**AZAROAK 8, zapatua**
Fundación Tony Manero + Los amigos invisibles

**AZAROAK 9, domeka**
Napalm Death

**AZAROAK 14, egubakoitza**
Paradise lost + Godhead

**AZAROAK 22, zapatua**
The Meteors

**AZAROAK 28, egubakoitza**
Tijuana in blue

**AZAROAK 29, zapatua**
Danko Jones + Electric Eel Shock

**AZAROAK 30, domeka**
Saxon + Doro

**KRONIKA/ GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO KANPORAKETA BERGARAKO NOVEDADES ARETOAN**

# Bertsotan txartel bila

AGIRREAZALDEGI, FINAL-LAURDENETARA PASA DEN DEBAGOIENDAR BAKARRA

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Deba eta Urola ibarretako hainbat bertsolari Bergarako Novedades aretoan lehiatu ziren final-laurdenetarako txartela eskuratzeko.**

Mikel Arrillaga eibartarrak, Oskar Alberdi zestoarrak, Leire Ostolaza azpeitiarrak, Ainhoa Agirreazaldegi , Gorka Ojanguren urretxuarrak, Enaitz Alustiza bergararrak eta Jokin Uranga eta Beñat Lizaso azpeitiarrek agurra kantatuz hasi zuten saioa, hurrenez hurren. Enaitzek Novedades aretoa ezagutzen zuela erakutsiz zinemari egin zion erreferentzia: “Jakin zinema baten sartu zaretena/ea nor den filmeko izar handiena”, kantatuz amaitu zuen agurra.

**ARIKETA PUNTUAGARRIAK**

Agurren ostean, txapelketarako puntuak batzeko txanda heldu zitzaien bertsolariei. Zortziko txikian eta handian ofizioka jardun eta gero bina punturi erantzun zieten eta hamarreko txikira pasatu ziren gero. Saioa amaitze aldera kartzelako lanean haur gor baten amaren paperean jardun zuten guztiek. Kanporaketa osoan ale politik entzuteko aukerarik izan zen Novedadesen, baita kartzelako lanean ere.

Debagoiendarren artean kanporaketetan puntu gehien eskuratu dituen bertsolaria Ainhoa Agirreazaldegi izan da, eta hona hemen kartzelan abestutako bertsoetako bat: “Seme txiki hau etortzeko zai, aita ta ni hainbat urte/ Bere negarrek orain bihotza, zeharo txikitzen dute/ Ez ote daukat zu lasaitzeko, behar hainbeste bertute/Nere bihotza, nere gogoa guztia jarriko nuke/ Irribarre bat egin zaidazu, neu lasaitzearen truke”. Bertso horrek ez ezik saio osoko erregulartasunak eman zioten Ainhoari txartela. Bergarako saiotik Urangak, saioko lehenak, Ostolazak eta Arrillagak ere egin dute aurrera.



I.A.

Bergarako kanporaketatik lau lagun sailkatu dira final-laurdenetarako.

# Urriak 17-24

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Dantza afrikar ikastaroa** egongo da azaroaren 4tik aurrera, sei martitzenetan. Irakaslea Aisha izango da, Burkina Fasoko dantzari bat. Eskolak Kurtzebarri ikastetxean izango dira, 20:00-21:30. Izena emateko, joan Aretxabaletako Azkena tabernara edo Arrasateko Aker-tattoo dendara, urriaren 21a baino lehen. Matrikula 27 euro kostatuko da.

### ARRASATE

► **Hastapen mailako joskintza ikastaroa** antolatu du Ekin Emakumeak taldeak, azaroaren 10ean, 12an eta 13an, 18:00-20:00. Joskintza lan txikiak egiten ikasteko dago pentsatuta. Izena emateko mugaeguna urriaren 31 da; horretarako, jo euren elkartera (Pablo Uranga 6, behea).

► **Hobetze mailako taila ikastaroa** antolatu du Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak, urriaren 21etik abenduaren 4ra bitartean (30 ordu). 50 euro kostatuko da matrikula. Horretarako, deitu 943 79 77 57 (Jose Mari) edo 943 03 78 28 (Imanol) telefonoetara.

### ESKORIATZA

► **Euskarazko Jolasen Ikastaroa** antolatu du Udalak, nagusiei zuzendu-ta. Azaroaren 8an, 15ean eta 22an izango dira jardunaldiak. Bi talde antolatuko dituzte: bata 0-5 urte arteko umeen guraso eta begiraleendako, eta beste bat 3-9 urtekoendako. Izena emateko mugaeguna urriaren 31 da.

► **Nagusiendako fandango eta arin-arin ikastaroa** antolatu du Udalak, azaroaren 4tik 23ra, 19:00-20:30. Udal Pilotalekuan izango dira eskolak. Izena emateko, deitu 943 71 46 88 telefonora edo idatzi helbide honetara: *euskara@eskoriatza.net.* Urriaren 31 da mugaeguna.

## DEIAK

### ARRASATE

► ***Palestina – de los acuerdos de Oslo a la Hoja de Ruta*** berbaldia egingo dute Naim Abu Tair doktoreak eta Juani Rishmawi Health Work Comittees taldeko presidenteak datorren martitzenean, urriak 21, udaletxeko osoko bilkura aretoan, 19:00etan. Arrasateko Komite Internazionalistek antolatu dute.

► ***Autodeterminazioaren prozesua Euskal Herrian*** berbaldia egingo du Miren Odriozola Udalbiltzako kideak datorren eguaztenean, hilak 22, Monterronen, 19:30ean. Mondragoeta-rrak taldeak antolatutako autodeterminazioaren inguruko hitzaldi zikloaren barne dago ekintza hori.

► ***Mujer contra mujer*** izenburupean, zinema-forum saioa antolatu du Emakume Txokoak eguaztenean, urriak 22. Aldarte taldeko Ana Uretak dinamizatuko du. Emakume Txokoaren egoitzan izango da, 19:00etan.

► ***Emakumea eta osasuna*** hitzaldia egingo du Mari Luz Esteban adituak datorren egubakoitzean, hilak 24, Emakume Txokoan, 19:00etan.

► **Holiday zirkuaren emanaldiak** egongo dira datozen egunotan. Gaur, egubakoitza, 18:30ean egongo da saioa; bihar, zapatua, 17:00etan eta 19:15ean; eta etzi, domeka, 12:00etan, 17:00etan eta 19:15ean. Eroski ondoko zelaian egongo da zirkua.

### BERGARA

► **San Joxepe elkartearen** VII. Hamabostaldi Kulturalaren Idazlan Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egongo da datorren egubakoitzean, urriak 24. Segidan, Fredi magoaren emanaldia egongo da. Novedades aretoan izango da, 19:00etan.

### ESKORIATZA

► ***Udazkenean sasoian egoteko aholkuak*** izeneko hitzaldia egingo du Mari Jose Pagaldai adituak martitzenean, hilaren 21ean, kultura etxean, 18:30ean.

► **Bake Konferentzia berriaren** aurkezpena egiteko berbaldia egingo du Elkarri taldeak hilaren 22an, eguaztena, Humanitate Zientzien Fakultatean, 19:00etan.

► **XIV. Mendi Bizikleta Ibilaldia** egongo da etzi, domeka, Eskoriatzako Udalak eta Txirrindulari Elkarteak antolatuta. Honako ibilbidea egongo da: Eskoriatza, Bolibar, Aitzorrotz, Usar, Usokoaitza, Venta Fria, Abeta, Albina, Kurutzeta, Asensio Mendi eta Eskoriatzara buelta.

### OÑATI

► **Laixan elkartearen jaietako zozketan** 1.180 zenbakia izan zen saritua. Saria da bi lagunendako asteburu bat landetxe baten. Urriaren 20rako ez baldin bada txartelduna agertzen, zozketa berriro egingo dute. Deitu 943 71 63 11 telefonora.

## LEHIAKETAK

### ANTZUOLA

► **Udalak antolatutako Argazki Lehiaketarako lanak** aurkezteko epea datorren egubakoitzean, hilak 24, bukatuko da. Gaia librea da. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez ere, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Labrit kantariaren emanaldia** egongo da datorren egubakoitzean, hilaren 24an, udaletxe zaharrean, 20:00etan.

### BERGARA

► **Musika jaialdia** egongo da gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiko elizan, 19:30ean, San Joxepe elkarteak antolatuta. Bergarako Musika Eskolak eta San Joxepeko abesbatzak hartuko dute parte.

► ***Bertsokolax*** ikuskizuna eskainiko dute Bergarako bertso eskolakoek bihar, zapatua, UNEDeko areto nagusian, 20:00etan. Sarrera, doan.

► **Cool panic (Bergara) eta Basque Country Pharaons (Iruñea)** taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

► **Udal Musika Bandaren emanaldia** egongo da etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

► **No Use For a Name, Bigwig eta Irish Car Bomb** taldeek kontzertua eskainiko dute datorren egubakoitzean, hilak 24, Jam aretoan, 22:00etan.






► JAIALDIAK

### VII. GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIALDIA ETZI ARETXABALETAN

Zazpigarren aldiz antolatu dute Aretxabaletan Gastronomia eta Folklore Jaialdia. Bertan, Euskal Herrian finkatutako beste herrialde batzuen kultura elkarteetako ordezkariak egongo dira. Talde parte-hartzaile bakoitzak bere herriko jaki onenak erakutsiko ditu, eta elkarteotako musika taldeek ere hartuko dute parte. Gaztela eta Leongo San Fernando taldea; Donostiako Errioxako Etxea eta Autol herriko jota kantariak; Donostiako Galiziako Etxea; eta Arrasateko Corazon de Encina extremadurar elkartea etorriko dira. Aretxabaletako Loramendi dantza taldeak ere hartuko du parte. Gatzagako Jakiongo produktuak egongo dira, eta Aratz taldeak taberna ipiniko du. IX. Patxaran Lehiaketa ere jokatuko da, 11:00etan.

**Non:** Aretxabaletako Herriko Plazan. **Noiz:** etzi, domeka, goizean. **Beste ekintza batzuk:** Patxaran Lehiaketa, 11:00etan.



## SOROSPEN IKASTAROAK, DYA-REN ETA GURUTZE GORRIAREN ESKUTIK

Sorospen ikastaro bana antolatu dute DYAk eta Gurutze Gorriak. DYAren ikastaroa urriaren 27an hasiko da, eta azaroaren 20an bukatu. Bergarako kultura etxean emango dituzte eskolak. Urriaren 23ra arte duzue epea izena emateko, 943 46 46 22 zenbakira deituta. Gurutze Gorriaren sorospen eta geriatria ikastaroa urriaren 27an hasi eta azaroaren 14an bukatuko da. Izena emateko, deitu 680 64 80 14 telefonora.

# ANTZERKIA

### ANTZUOLA

► ***Kutsidazu bidea, Ixabel*** antzezlana egingo du Gorringo taldeak datorren zapatuan, hilak 25. Sarrera txartelak salgai egongo dira astelehenetik egubakoitzera arte udaletxean.

### ARAMAIO

► ***Lotsa-Gabe*** antzezlana eskainiko du Vaiven taldeak bihar, zapatua, kultura etxean, 22:00etan.

### ARETXABALETA

► **Ipuin kontaketa** saioa eskainiko du Oihulari Klown taldeak datorren eguenean, hilak 23, liburutegian, 18:00etan. 6-8 urte bitarteko umeei zuzendutako ekintza da.

### ARRASATE

► ***Ni izango naiz the number one*** antzerki-monologoa egingo du Matxinek datorren egubakoitzean, urriak 24, Jai-Zale tabernan, 23:00etan, Kultur Errotaren barne.

### ELORRIO

► ***A quien madruga…*** antzezlana eskainiko du Cambaleo Teatro taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

► ***Muzzikiren bidaia harrigarria*** umeendako antzezlana eskainiko du Pok Produkzioak taldeak etzi, domeka, Arriola aretoan, 17:00etan.

► ***Nosferatu*** antzezlana eskainiko du Teatro Che y Moche taldeak datorren egubakoitzean, urriak 24, Arriola aretoan, 22:30ean.

### OÑATI

► ***Mi suicidio*** antzezlana eskainiko du Mario Gas antzerki konpainiak bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

# Zinema

### ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***En la puta vida***
Eguena, urriak 9: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***La pelota vasca***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:15.

***El misterio Galíndez***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEMA**

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Happy times (J.B.A.)***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Underworld***
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***El juego de Ripley***
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Dos policías rebeldes 2***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Freddy contra Jason***
Egunero: 17:30, 20:00.

***Hasta que la muerte los separe***
Egunero: 17:30.

***Italian job***
Egunero: 22:30.

***Open range***
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00, 22:30.

***La pelota vasca***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Underworld***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El mexicano***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Soñadores***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***El día de la bestia***
Eguena, urriak 23: 19:45.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Freddy contra Jason***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Hasta que la muerte los separe***
Egunero: 17:15.

***Underworld***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***La pelota vasca***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Enigma***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Italian job***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:15.

***El mexicano***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Dos policías rebeldes 2***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:45.

***El club de los emperadores***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Días de fútbol***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Carmen***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Te doy mis ojos***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Pollock***
Egunero: 20:00.

***Los abajo firmantes***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Buen viaje, excelencia***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Cosas que no se olvidan***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Together***
Egunero: 20:00.

***El club de los emperadores***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

■ **ABACO-LAKUA ZINEMAK**

***El mexicano***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:15, 20:25, 22:30, 00:45.
Domeka: 16:10, 18:15, 20:25, 22:30.

***Freddy contra Jason***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:30.
Domeka: 16:05, 18:10, 20:15, 22:25.

***Open range***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:05.

***Días de fútbol***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

***Dos policías rebeldes 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 19:00, 22:05, 01:00.
Domeka: 16:00, 19:00, 22:05.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:15.

***Italian job***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:20, 00:45.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:20.

***Una rubia muy legal 2***
Egunero: 20:10.

***Hasta que la muerte los separe***
Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 01:00.
Domeka: 22:45.

***Underworld***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 22:00, 00:30.
Domeka: 16:30, 19:30, 22:00.

***Soñadores***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 20:00, 22:00, 00:45.
Domeka: 16:20, 20:00, 22:00.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitza eta zapatua: 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.
Domeka: 17:50, 20:05, 22:20.

***Freddy contra Jason***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Italian job***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:55, 18:15, 20:25, 22:35.

***Simbad: la leyenda de los siete mares***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15.
Domeka: 12:15, 16:15.

***Dos policías rebeldes 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:45, 21:45, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:45, 21:45.

***Papá canguro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35.

***El mexicano***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 21:30, 00:20.
Domeka: 12:15, 18:30, 21:30.

***Carmen***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:40, 17:55, 20:10, 22:25.

***Open range***
Egubakoitza eta zapatua: 18:35, 21:35, 00:25.
Domeka: 12:25, 18:35, 21:35.

***Días de fútbol***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:40, 17:55, 20:10, 22:25.

***La pelota vasca***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.
Domeka: 12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.

***Hasta que la muerte los separe***
Egubakoitza eta zapatua: 22:35, 00:35.
Domeka: 22:35.

***Underworld***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

***Doraemon***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45.
Domeka: 12:15, 15:45.

***Identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 20:15, 22:15.

***Los rugrats***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10.
Domeka: 12:15, 16:10.

***Una rubia muy legal 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15.

***The mix***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

*La pelota vasca:* ●●●●

# ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **'Calcuta, begirada zabalik'** argazki erakusketa dago Monterronen, 18:00etatik 20:00etara. Jose Lezarreta, Fernando Molerez eta Gonzalo Montiel argazkilari profesionalek Indiako hiri horretan ateratako 60 bat lan daude ikusgai. Calcuta Ondoan gobernuz kanpoko erakundeak antolatu du.

### GASTEIZ

► **Xabier de Zerio eskultoreak** erakusketa du Felisa Navarro aretoan (Cercas Bajas 2), astelehenetik zapatura, 17:00-21:00.

### OÑATI

► **Ageriko I. Margo Lehiaketako lanak** ikusteko aukera egongo da etzira bitartean, domeka, kultura etxeko erakusketa gelan

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### TE DOY MIS OJOS

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Iciar Bollain.
**AKTOREAK:** Laia Marull, Luis Tosar, Candela Peña.

Zaila izaten da emakume askok jasaten ari diren tratu txarren gaiari tonu egokia aurkitzea. Oso erraza da motz geratzea edo, alderantziz, gaiaren erabilpen txarra egitea. Baina *Te doy mis ojos* filmarekin Iciar Bollainek, gaiari hurbiltzeko duen eragatik eta pertsonaiei ematen dien tratamendu sakonagatik, alde batera uzten du telebista dokumental baten edo film sentsazionalista eta manikeo baten erortzeko arriskua. Zuzendariak, ahal duen neurrian biolentziaz betetako irudiak murriztu egiten ditu, baina dena den, ikusleak neska protagonista jasaten ari den oinazearen susmoa izatea lortzen du; inguruko bortizkeria kutsua eta neskaren ikara argi eta garbi antzematen dira. *Te doy mis ojos* filmak ez du bakarrik gaur eguneko gizartean dagoen arazo kezkagarrienetariko baten salaketa egin nahi; filmak pertsonaien buruan sartu eta horien pentsamendu eta sentimenduak azaldu nahi ditu. Biktimaren sentimendu nahasketa: alde batetik, beldurra, eta beste aldetik, senarrak bere portaera aldatuko duen itxaropena; eta borreroaren sentimenduak: hau ez da animalia bat bezala azaltzen, zuzendaria honengana hurbiltzen da bere ika-



rak, konplexuak eta frustrazioak erakusteko. Gizonezko pertsonaiaren ezaugarri hauek amorru sentimendu bihurtzen dira eta basakerian eta justifikazio gabeko portaeran bukatzen dute. Iciar Bollainek, egoera horien konplexutasun guztia islatzeko, pertsonaia protagonisten eta horietatik hurbil bizi diren pertsonaien ikuspuntu desberdinak erakusten dizkigu.

Filmaren arrakasta eta irudiak barreiatzen duten egiazkotasuna eta intentsitate mailan aktoreen interpretazio bikainak zerikusi handia dute. Laia Marullek eta Luis Tosarrek duela gutxi Donostiako Zinemaldian aktore onenei ematen zaien zilarrezko maskorra lortu dute. Zehaztasun eta sentsibilitate handiz islatzen dute pertsonaien barnean sortzen diren ñabardura eta emozio-uholde guztiak.

*Te doy mis ojos*-ek ikuslea hunkitzea lortzen du eta oso era konbentzigarrian aditzera ematen du tratu txarren arazoaren konplexutasuna.

ANTONIO ZABALA

Eskela,
urteurren meza
edo eskertzarik jarri
nahi baduzu,
etor zaitez
GOIENKARIAren
ordezkaritzetako
batera.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.



### ESKER ONA

## Agustin
## Urrutia Zubizarreta

Aretxabaletan hil zen
2003ko urriaren 11n,
66 urte zituela.



*Familiaren izenean, bihotz-bihotzez eskerrik asko hileta elizkizunetara joandakoei.*

OHARRA: Domekan, urriaren 19an, 12:00etan bere arimaren alde meza emango da Aretxabaletako Parrokian.
Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

## Ascension
## Zubiate Otadui

Elgetan hil zen
2003ko urriaren 10ean,
92 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Josu
## Mujika Gallastegi

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 19an,
12:30ean,
**Bergara**ko San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Itziar
## Arrieta Agirrebeña

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 19an,
12:30ean,
**Bergara**ko San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Josefa
## Fernández Esteban

Bigarren urteurreneko meza
domekan, urriaren 19an,
12:00etan,
**Aretxabaleta**ko Parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Andoni
## Olertza Telleriarte

*"Txanbo"*

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 19an,
12:30ean,
**Bergara**ko San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

Emazteak eta lagunek ez zaitugu ahazten.

### URTEURRENA

## Joakin
## Arana Lezea

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 19an,
12:30ean, **Arrasate**ko
San Juan Bautista parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

## Concepcion
## Larrañaga Gabilondo

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 19an,
12:30ean,
**Bergara**ko San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKELA

## Maialen
## Mulas Canas

Malagan hil zen 2003ko urriaren 13an, 22 urte zituela.

*Joan zinen gure artetik,
baina zure umore ona eta
alaitasuna gogoratuko ditugu eta
gure artean jarraituko duzu betiko.*



Santamainako lagunak

### ESKELA

## Maria Teresa
## Zabala Garai

Arrasaten hil zen 2003ko urriaren 13an, 56 urte zituela.

*Beti gogoan izango zaitugu.*



Goiz Argi eta zure lankideak

## AIPAGARRI

### Idoia Ibañez

ARRASATE



Aurreko asteburuan Ordizian egindako Artisaualdia azokan saria jaso zuen Idoia Ibáñez arrasatearrak. Stand apainketaren hirugarren saria, hain zuzen ere, eman diote Idoiari. Urte asko darama Idoiak eskulangintzan eta era guztietako eskulanak egiten ditu: larrua lantzen du, makramea...

### Xabier De Zerio

BERGARA



Xabier De Zerio eskultore bergarararrak erakusketa jarri zuen aurreko martitzenean, hilak 14, Gasteizen, Felisa Navarro arte galerian, hain zuzen ere. Bere azken lanak daude ikusgai hantxe, azaroaren 7ra arte. Astelehenetik zapatura egongo da zabalik, 17:00etatik 21:00etara.

### Oihana Elortza

OÑATI



Urteetan Euskal Telebistako *Bertatik Bertara* saioan ibili da Oihana Elorza kazetari oñatiarra; oraingo astean, berriz, GOITBn hasi da lanean. Albistegietan dihardu lanean, baina *Bertatik Bertara* saioan zuen estiloari eutsiko dio; estilo hartako erreportajeak egingo ditu GOITBn ere noizbehinka.

## HILDAKOAK

**Mari Cruz Madariaga Irastortza.** Oñatin, urriaren 5ean. 72 urte.
**Lidia Bartol Frutos.** Eskoriatzan, urriaren 5ean. 23 urte.
**Isaac Martín Martínez.** Arrasaten, urriaren 8an. 80 urte.
**Angel Durue Alonso.** Arrasaten, urriaren 8an. 82 urte.
**Migel Azpiazu Iriarte.** Oñatin, urriaren 8an. 87 urte.
**Rafael Vallejo Guirado.** Bergaran, urriaren 9an. 71 urte.
**Daniel Angel García de Albeniz Díaz de Zerio.** Oñatin, urr. 10ean. 51 urte.
**Ascension Zubiate Otadui.** Elgetan, urriaren 10ean. 92 urte.
**Agustin Urrutia Zubizarreta.** Aretxabaletan, urriaren 11n. 66 urte.
**Maria Teresa Zabala Garai.** Arrasaten, urriaren 13an. 56 urte.
**Asuncion Zabaleta Igartua.** Bergaran, urriaren 13an. 69 urte.
**Clara Mugarza Arrue.** Oñatin, urriaren 13an. 51 urte.
**Jabier Larrañaga Barrena.** Bergaran, urriaren 15ean. 46 urte.
**Adelaida García Tajadura.** Bergaran, urriaren 15ean. 93 urte.



**Erlantz Negro Gómez**
Arrasate • Urriaren 9a • 4,300 Kg. Gurasoak: **Olivia Gómez** (Arrasate) eta **Roberto Negro** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



**Egoitz López Campos**
Arrasate • Urriaren 9a • 3,150 Kg. Gurasoak: **Mari Campos** (Eskoriatza) eta **Andoni López** (Arrasate). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Lucia Largo Ibarrondo**
Oñati • Urriaren 10a • 3,855 Kg. Gurasoak: **Asun Ibarrondo** (Oñati) eta **Jose Ignacio Largo** (Zumaraga). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Haizea Bengoa Garate**
Bergara • Urriaren 12a • 3,300 Kg. Gurasoak: **Aitor Bengoa** (Bergara) eta **Mirian Garate** (Elgoibar). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Sara Isasisasmendi Egaña**
Oñati • Urriaren 10a • 3,130 Kg. Gurasoak: **Ainhoa Egaña** (Oñati) eta **Jon Isasisasmendi** (Oñati). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Maialen Sampedro Elortza**
Arrasate • Urriaren 11 • 2,660 Kg. Gurasoak: **Elena Elortza** (Arrasate) eta **Jabi Sampedro** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Hugo Cachafeiro Rodríguez**
Bergara • Urriaren 10a • 4 Kg. Gurasoak: **Arturo Cachafeiro** (Bergara) eta **Mari Jose Rodríguez** (Bergara). Argazkian, umea amarekin.



**Alazne Jauregi Velasco**
Bergara • Urriaren 13a • 3,650 Kg. Gurasoak: **Mari Karmen Velasco** (Bergara) eta **Iñigo Jauregi** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Julen Rubio Oñati**
Eskoriatza • Urriaren 14a • 3,260 Kg. Gurasoak: **Jabier Rubio** (Eskoriatza) eta **Lurdes Oñati** (Eskoriatza). Argazkian, umea aitona Jose eta amama Luz Divinarekin.



**Naroa Zabala Gabilondo**
Eskoriatza • Urriaren 14a • 3,735 Kg. Gurasoak: **Anabel Gabilondo** (Bergara) eta **Oskar Zabala** (Eskoriatza). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Milagros Beitia** eta **Jose Luis Azkarate** arrasatearrek ezkondu zireneko 33. urteurrena bete zuten urriaren 10ean. Egubakoitzean bertan ospatu zuten urteurrena familiarekin. Zorionak eta urte askotarako, bikote, Cesar, Sergio, Larraitz, Saioa eta familia osoaren partetik!



**Aitziber Gorosabel** eta **Joxerra Pérez** Leintz-Gatzagako alkatea aurreko zapatuan ezkondu ziren udaletxean. Irteeran, harrera polita egin zieten dantzariek, argazkian ikus daitekeen moduan. Orain, Polonian daude, ezkon bidaian. Zorionak, bikote, eta urte askotarako!



**Ana Jesus Guridi** eta **Jose Mari Larrañaga** bergararrek 32 urte bete dituzte ezkonduta. 1971ko urriaren 9an ezkondu ziren, Bergarako San Pedro elizan. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, Mireia eta Igor zuen seme-alaben partetik!

SARE INMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

SALGAI

**ARRASATE**
- 69 $m^2$. Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela, sotoa. Guztiz berritua.
- Erdialdean etxebizitzarako nahiz negoziorako balio duen etxebizitza salgai. Leku ezin hobean. Informazio gehiago bulegoan.
- Erdialdean 60 $m^2$ko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Erdi berrituta. Kanpoaldera.

**BERGARA**
- 60 $m^2$. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berriztuta. 117.197,36 euro / 19.500.000 pta.
- 70 $m^2$. Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.
- Bolu auzoan. 96 $m^2$. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela bi. Oso argitsua. Ondo dago.
- 50$m^2$. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Despentsa eta sotoa. Berrituta.

**ARETXABALETA**
- 83 $m^2$. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Ganbara. Guztiz berrituta.
- Erdialdean lokala salgai, etxebizitza egiteko baimenarekin. 82 $m^2$. Lehenengo solairuan dago.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Bolu. 96,5 $m^2$. Egoera onean.
- Zubiaurren duplex txikia. Berrituta.
- Arruriaga. 120$m^2$. Oso aukera ona.

**OÑATI / Etxebizitza salgai**
- 96 $m^2$. Terraza ederra. Erdialdean dago.

**BASERRIAK**
- Osintxun 400 $m^2$ + 9 hektarea. Pinu eta fruitarbola ugari.

**ANTZUOLA / Etxebizitzak salgai**
- Beheko auzoa. 60$m^2$. Eguzkitsua.

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
- 276.465,57 euro (49 milioi).

Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: $m^2$ ugari egokitzeko moduan.

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA**
TERRAZADUN TABERNA ALOKAIRUAN. ERDIALDEAN. 639 00 54 62

**DEBAGOIENA**
ERRETIROA DELA-ETA GARRAIO ENPRESA ETA BI KAMIOI SALGAI
KAMIOIAK:
IVECO KURZO 4.30
2 urte eta erdi ditu. Garraio txartel nazionala. Oso prezio ona.
MAN 3-22
7 urte eta erdi ditu. Garraio txartel nazionala. Oso prezio ona.
645 72 18 09

**BERGARA**
KAFETEGIRAKO MAHAIAK, AULKIAK, KAFE-MAKINA, HOZKAILUA, ONTZITERIA ETA KAFE-EHOGAILUA SALGAI. 639 77 41 16

**ARAMAIO**
SUKALDARIA BEHAR DA JATETXE BATEAN LAN EGITEKO. 945 44 50 86

**ARETXABALETA**
SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA BASTER ALDE JATETXEAN. 679 45 57 75

**ARETXABALETA**
ZERBITZARIAK ETA SUKALDE LAGUNTZAILEAK BEHAR DIRA ASTEBURUETARAKO. 652 70 82 46

**DEBAGOIENA**
SUKALDARIA BEHAR DA TABERNA BATERAKO. 943 79 00 34

**BERGARA**
IPAR PROJECT-EN DEKORAZIO IKASKETAK EDO ANTZEKOAK DITUEN NESKA BEHAR DA. 943 76 98 30
DENDA ORDUTEGIAN DEITU

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Apartamentu berritua salgai. 40 $m^2$. Erdi jantzita. 943 76 63 38 edo 647 56 67 96.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Gorostiza auzoan, Malvinetan. 90 $m^2$. Garajea eta ganbara. 630 05 00 39.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 87 $m^2$. Berrituta. 943 76 21 92.

**Bergara.** Etxea salgai Bolun. 96 $m^2$. Telefonoa: 660 52 95 16.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. 60 m2. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela. Maria Jesus. 943 76 71 12.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. 943 76 25 68.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Bi oheko logela ematen da errentan. Euskaldun batendako edo birendako. Etxebizitza berria. Urko edo Eneider. Telefonoa: 653 70 14 83 edo 606 80 65 13.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza emango nuke errentan. 3 logela. Guztiz jantzita. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Eskola Politeknikotik bost minutura dagoen etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi komun ditu, dena kanpoaldeari begira. 657 77 92 85.

**Arrasate.** Eskola Politeknikotik gertu. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Prezio onean. Telefonoa: 943 76 59 93.

**Arrasate.** Etxebizitza emango nuke errentan. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Berogailua du. Telefonoa: 629 42 26 54.

**Arrasate.** Etxebizitza emango nuke errentan. Ikasleentzako aproposa. Eskola Politeknikotik gertu. Telefonoa: 943 79 21 09.

**Arrasaten.** Etxebizitza alokatzeko daukat herri erdialdean, ikasleentzako aproposa. 646 45 64 13.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen dut errentan. Levante aldean. 637 88 91 25.

**Chiclana (Cadiz).** Etxebizitza ematen da errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso-oso gertu. Gauez deitu. 670 37 71 03.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte eta langilea apartamentu bila dabil. 943 77 02 17 edo 652 70 67 93.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Telefonoa: 636 20 61 40.

**Bergara** Logela edo etxea hartuko nuke errentan. 605 78 70 76.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 660 38 75 24.

**Etxebizitza** hartuko genuke errentan Arrasaten edo Aretxabaletan. Telefonoa: 615 75 89 15.

**Oñati.** Bikote gazte batek Oñatin etxebizitza bat alokatu gura du. 652 76 14 37 edo 635 73 06 27.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Pertsona bat gertu etxebizitza osatzeko. Aitziber. 605 77 46 57.

**Arrasate.** Gela baten bila nabil etxebizitza batean. 680 56 42 17.

**Arrasate.** Ikasleen etxebizitza osatzeko laguna falta da. Eskola Politeknikotik gertu. 639 58 87 40.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Espoloi kalean. 639 39 18 54.

**Eskoriatza.** Logela alokatzen da etxebizitza batean, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 943 71 55 01.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Araba ibilbideko 27an garaje itxia salgai. 20m2. 943 79 69 83.

**Bergara.** Ozaetan garaje itxia salgai. 943 76 00 12.

**Oñati.** Moiua kalean garajea salduko nuke. Telefonoa: 615 71 53 29.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uribarri etorbidean. 943 79 33 48.

**Arrasate.** Kontzezinon garaje itxia ematen da errentan. 943 79 55 20.

**Bergara.** Garaje itxia errentan ematen dut, Espoloian. 656 72 65 59.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Antzuola.** Banatu daitekeen 112 m2-ko lokala salgai. Iluntzean deitu. Telefonoa: 943 78 71 85.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 656 41 00 08.

**Arrasate.** Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dugu. 943 79 23 02.

**Arrasate.** Neska bat gertu dago etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Badaki euskaraz. 943 03 78 42.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. 607 21 36 38.

**Etxeko** lanak egiteko pertsona bat behar da. Gauez deitu. 943 76 12 80.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 35 urteko emakumea gertu edozein lanetan jarduteko, orduka. Ostalaritzan esperientziaduna. 696 86 07 65.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egiteko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea goizez etxeak edo atariak garbitzeko gertu. 646 41 66 99.

**Arrasate.** Etxeak, tabernak, bulegoak... garbitzen egingo nuke lan. Esperientziaduna. 616 07 68 25.

**Arrasate.** Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. 667 92 84 06 edo 645 71 46 11.

**Banaketa** lanak egingo lituzke autoa daukan gizon batek. 665 70 10 57.

**Bergara.** Arotza naiz, baina beste hainbat lan ere egingo nituzke, esate baterako, tabernari lanak eta zaharrak zaindu. 677 05 99 99.

**Bergara.** Diplomaduna gertu errusierako interprete lanak egiteko. Esperientziaduna. 943 76 63 10.

**Bergara.** Emakume batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 56 92.

**Bergara.** Emakume jostun batek hainbat lan egingo lituzke: umeak zein zaharrak zaindu, etxeko lanak egin... 677 05 99 99.

**Bergara.** Etxeak garbitzen eta umeak zaintzen egingo nuke lan. 08:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. 943 76 25 81.

**Bergara.** Jatetxe baten ontziak garbitzen edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 660 78 00 73.

**Bergara.** Jatetxe baten ontziak garbitzen edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 686 10 85 52.

**Bergara.** Jatetxe edo taberna baten ontziak garbitzen edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 665 13 31 10.

**Bergara.** Neska bat haurrak zaintzen edo denda baten lan egiteko gertu. 686 17 52 59.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko, astelehen goizetan. 943 76 29 52.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako prest. 610 34 65 82.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka garbiketa lanak egiteko edo arratsaldez umeak zaintzeko. 943 71 53 74.

**Debagoiena.** Neska gaztea ezkontzetan mahai-zerbitzari lanak egiteko gertu. 943 79 93 14.

**Debagoiena.** Ostalaritzan esperientzia handia duen gizonezkoa gertu asteburuetan lan egiteko, orduka. 686 74 01 95.

**Emakumea** gertu orduka etxeko lanak egiteko, Arrasaten eta Aretxabaletan. 619 83 68 19.

### 403. BESTELAKOAK

**Debagoiena.** Idazlanak, apunteak eta bestelako dokumentuak ordenagailura pasatzen ditut. 696 71 42 89.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Alemaneko** eskola partikularrak emango lituzkeen pertsona aleman baten bila nabil. 610 88 85 03.

**Arrasate.** Harmonia eskolak hartuko nituzke. 677 81 24 34.

**Arrasate.** Marrazketa Linealeko eskola partikularrak jaso gura ditut Arrasaten, goizez. 943 53 36 02.

**Bergara.** Ingeleseko ahozko eskolak jasoko nituzke. 652 71 74 09.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen dira, maila guztietan. Telefonoa: 943 79 03 83.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia handia. Arreta pertsonalizatua eta maila guztiak. Matematika, fisika, kimika, marrazketa, teknologia, elektrizitatea, ingelesa. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Irakasletzan diplomadunak laguntza eskolak ematen ditu. Telefonoa: 626 26 55 42.

**Arrasate.** Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak ematen dizkiet. Irakasletzan lizentziaduna naiz eta eskarmentua daukat eskolak ematen. 657 72 96 32.

**Arrasate.** Neska ingelesak eskolak emango lituzke. Edozein adin eta mailatako jendearentzat. 943 79 86 28.

**Bergara.** Filologoa gertu ingeleseko eskolak emateko. 610 97 49 68.

**Bergara.** Irakasletzan diplomaduna eskola partikularrak emateko gertu, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei. 943 76 33 61 edo 606 54 31 55.

Garbi S.L.®

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

TURANDOT
Lagunak gara

Lagun berriak egin eta ondo pasatu nahi duzu?
Afariak, asteburuak, irteerak, eta abar antolatzen ditugu.
Ezkongabe, alargun, dibortziatu eta bananduendako.
Edozein adin, izaera, klase sozial eta joerakoak.

Dei egiguzu 943 34 12 19 telefonora.
Informazio guztia bidaliko dizugu, konpromiso barik.

TURANDOT GIPUZKOA

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroën** AX autoa salgai. SS-AT. 117.000 km. 900 euro. Telefonoa: 645 71 98 84 edo 649 11 83 46.

**Citröen** ZX 1.9 Turbo D autoa salgai. Hiru ate ditu eta metalizatua da. Hainbat gehigarri. Oso ondo zainduta. 616 56 02 89.

**Ford** Focus Tddi salgai. Hiru urte ditu. Full equipe. Esku libreko telefonoa jartzeko aukera. Aukera ona. 616 09 37 92.

**Golf** 1600 autoa salgai. SS-AP. Prezioa: 1.500 euro. 655 74 18 01.

**Opel** Astra 1.4 autoa salgai. 5 ate. 8 urte. IAT (ITV) pasatu berri. Kilometro gutxi. Prezio interesgarria. 22:00etatik aurrera deitu. Telefonoa: 943 79 34 53.

**Peugeot** 205 1.8 Diesel autoa salgai. Oso gutxi kontsumitzen du. Telefonoa: 655 74 80 07.

**Peugeot** 205 autoa salgai. Gasolinazkoa. 1100 motorra. 1996koa. Merkea. IAT (ITV) pasatuta. 678 31 98 06.

**Renault** Clio 1.9 Diesel autoa salgai. 1996koa. Estrak. 3.455 euro. 667 53 70 12.

**Scooter** motoa salgai, Suzuki Address-R. 676 07 68 25.

**Seat** Cordoba 1.6 autoa salgai. SS-AV. Oso ondo dago. 98.000 Km. Telefonoa: 686 39 47 02.

**Seat** Toledo CL 1.6i autoa salgai. 1993koa. Prezio ona. 652 76 40 31.

**Suzuki** Samurai 4x4 luzea salgai. Defentsa eta gurpil askatzailearekin. 135.000 Km. Ondo dago. 656 71 41 59 edo 615 74 10 67.

**Trialera** salgai. Cota 314, oso-oso berria. 943 79 15 50.

**Yamaha** VR 400 motoa salgai. Enduro. Ondo zainduta. Osagarriak. Telefonoa: 659 04 20 99.

**Yamaha** XT 350 motoa salgai. 1990ekoa. Oso ondo dago. Motor ona. Mantenu kostu txikia. 1800≠. Deitu gauez. 617 73 57 74 edo 943 78 20 21.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Artzain** txakur aleman emeak salgai. Pedigria dute. Txerto eta mikrotxiparekin. Desparasitatuta. Aukera paregabea. 677 98 30 60.

**Shar-pei** arrazako txakurkumeak salgai. Pedigria dute. Kristina. 945 33 75 81.

### 704. BESTELAKOAK

**Txabola** salgai, txakurrak edukitzekoa. Bergarako erdialdean. Lursail txikiarekin. 943 76 99 76.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrasate.** Ohatzeak (literak) salgai, Flex markakoak. Oso ondo daude. Oso merke. 943 79 57 64.

**Hagunak (llantak)** salgai. Golf IV autorako. Elegance modeloa. Estalki barik. 280 euro. 650 21 15 36.

**Haurrendako** kotxea salgai, Silvercross markakoa. Bilbao modeloa. 200 euro. Eta interkomunikagailua salgai, Angelcare markakoa. 36 euro. 656 77 63 38.

**Ibiltzeko** zinta salgai. Berri-berri dago. Kronometroa eta abiadura, distantzia, kaloria eta pultsu neurgailak ditu. 130 euro. Abdominalak egiteko taula opari. 647 67 55 05.

**Motozerra** elektrikoa salgai. Black & Decker markakoa. Estreinatu gabea. 100 euro. 943 76 61 05.

**Trialeko** bizikleta salgai. Monty markakoa. Merke-merke. 943 77 16 36.

**Trikitia** salgai, Zero Sette markakoa. Lau ahots. 943 78 28 80.

**Tronboia** salgai. Telefonoa: 676 78 37 65.

### 806. GALDU

**Urrezko** eskumuturrekoa galdu nuen Bergaran. "Maialen" eta "2000-10-25" ipintzen du. 943 76 54 63.

## HITZGEZIDUNAK

Luma

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Izateko era / Bat ere ez | | Nafarroako herria / * Izena | | Tamaina |
| | | | | | | | |
| | | | Landare mota / Arroka bolkanikoa | | | | |
| Beranduko ordu / Harkosko | | Izoztu / * Deitura | | | | | |
| | | | | | Zirkonioa / Zapataren atal | | |
| Rabatgo herritar / Era hartan | | | | | | | |
| | | | | Jardun / Edateko | | | |
| Neodimioa / Ogi-pusketa | | | Eguzki / Nitrogenoa | | | | Beira |
| | | | | | | 50 / Tema | |
| Osmioa / Zakur | | | Erraz / Ibai-ontzia | | | | |
| | | Ez eme / Iridioa | | | Omen (Bizkaian) / Antimonioa | | |
| Lekale mota / Gogo, nahi | | | | | | | |
| | | | | Presio-unitate | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**KONFUSIÑO AUNDIXA**

Plaentxiar bat sartu da tabernan bere alabatxuakin, eta aurrez aurre ikusi dau futboleko kartel bat: Barakaldo eta Osasunaren emaitzak. Itxura danez oso bista onekua ez zan eta au irakurri zeban: Bacalao, 3 – Aceituna, 1. Aren poza lau pezetako merkealdia ikusi zebanian. Eskatu dau bakallau raziñua beretzat eta alabatxoarentzat, azeitunak. Ordaintzerakuan, neskamiak diñotsa:

- Kontua 17 pezeta da.

- Zelan baiña —diño plaentxiarrak—, kartelian eztau ori ipintzen.

Kartelian ipintzen zebana au da: Baracaldo, 3 – Osasuna, 1.

**UGENIO BIAJANTIA**

Bein batian, "biajantiak" urteroko anai-arteko afaixa eukela-eta, deitu zetsen Ugeniori afaltzera juateko. Ugenio juan eziñ, ordea. Eta bere erantzuna.

- Ara, egixa dok medikuak 25 urterako bizitza gutxienez emoten destela, baiñan etxeztek ibiltzen erakusten. Orrexegaitik, barkatu, baiña ezingonok etorri gure afarira.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




### Zenbat igo da euskaldunen proportzioa Debagoienean azkeneko 20 urteetan?

Orain dela gutxi kaleratu ditu EUSTATek 2001eko erroldako hainbat datu. Bertan ikus liteke, besteak beste, 1981etik 2001era Debagoienak hizkuntzaren aldetik izan duen bilakaera. Gaitasunaren aldetik euskaldunen kopurua igo egin da. Baina zenbat? Zein da 1981eko euskaldunen portzentajearen eta 2001ekoaren arteko aldea? Asmatuko ote zenuke?

- 7 puntu.
- 18,3 puntu.
- 10,6 puntu.
- 14,2 puntu.

**Erantzun zuzena:** 10,6 puntu. %54,4 izatetik %65,9 izatera pasa da euskaldunen kopurua. (Aramaio kontuan hartuta)

## SOLUZIOAK



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | ● | I | ● | B | ● |
| | | | E | Z | E | I | N |
| | | | ■ | A | L | O | E |
| ● | B | ● | L | E | I | T | U |
| L | E | G | A | R | ■ | Z | R |
| ● | R | A | B | A | T | A | R |
| H | A | L | A | ■ | A | R | I |
| ● | N | D | ■ | E | K | I | ■ |
| O | T | O | N | D | O | ■ | L |
| ● | O | S | ■ | A | I | S | E |
| O | R | ■ | A | R | ■ | E | I |
| ● | D | I | L | I | S | T | A |
| G | U | R | A | ■ | B | A | R |

## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Daukazun jarrera positibo horrek edozer lortzeko indarra emango dizu. Bestalde, arazoak izango dituzu hil amaierara ailegatzeko, gastatu eta gastatu besterik ez duzu egiten-eta.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Estresaren eraginez nekea antzemango duzu, eta medikuarengana joko duzu; are gehiago, ohean eman beharko dituzu hainbat egun. Bestalde, bikotekidearekiko harremana hoztu egingo da.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Aisialdirako denbora luzeagoa izango duzu eta, horrez gain, oso une atseginak bizi izango dituzu lagunekin. Bestalde, zaintiratu edo hausturaren bat izan zenezake.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Aldaketak lanean, eta epe luzera onuragarriak izango dira. Bestalde, eztabaidak anai-arrebekin, haiek aspaldiko kontuak astinduko dituzte-eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Uste duzu lagunek ez dituztela zure arazoak ulertzen, eta horren ondorioz haiengandik aldendu egingo zara; jende berria ezagutzeko irrikan egongo zara.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Bikotekidea duzuenok liskarra izango duzue harekin, eta zuen arteko harremana hondoa jotzeko gertu egongo da; eta bikotekiderik ez duzuenok neska/mutil bat ezagutuko duzue, baina zuen artean ez ezer berezirik sortuko.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Komeni zaizu harremanak sendotzea; izan ere, harreman horien bitartez oso kontratu onuragarriak sinatzeko aukera izango duzu, eta lanean abantailak lortu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Neska/mutil batek baino gehiagok sexu-harremanak eduki gura izango ditu zurekin; hala, bikotekidea duzuenok arazoak izango dituzue harekin.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Lana besterik ez duzu izango buruan; horren ondorioz, aisialdirako denbora laburra izango duzu, eta umore txarrez egongo zara. Edozelan ere, ahalegin zaitez umore txar hori zuretako bakarrik gordetzen, bestela, zure inguruko norbait minduta senti daiteke-eta.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Arazoak izango dituzu lanean, eta horren ondorioz hausnarketa egin beharko duzu; izan ere, bide onetik zoaz? Edozelan ere, laguntza eska ezazu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Dirua eta ondasun naturalak; horiek lortzea da zure helburua. Eta horrek zera eragingo du: lagun guztiak galtzea.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Arazoak lagunekin eta familiakoekin; izan ere, gauzak zeure erara egin nahi dituzu beti, eta ez duzu inoiz aholkurik eskatzen.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA



## ‘Goienan, herriz herri’

MARTITZENA 21 / **20:30**

### Eskualdeko herriak aztergai izango dira aurten ere

Debagoieneko herriak aztertzen segituko du aurten ere Alberto Gorritibereak. Izena aldatu du, ordea, programak eta aurrerantzean *Goienan, herriz herri* deituko da. Lehenengo saioan Aramaio herria izango du hizpide aurkezleak.



## ‘Txintxaun’

EGUAZTENA 22 / **20:30**

### Haurren programa berriak eguna aldatu du

*Txintxaun* haurren programa berria eguaztenetan emitituko da hemendik aurrera. Ibarreko haurrek parte hartzen dute saio horretan, eta jolas egiteaz gain, lehian ere aritzen dira. Irabazlearen saria ez da makala: Portaventurara bidaia.



## ‘Berriak ’

EGUNERO / **14:30** eta **20:OO**

### Ibarreko notiziak egunero, eguerdian eta iluntzean

Ibarreko notizia esanguratsuenak biltzen ditu GOITBko albistegi zerbitzuak. Gorka Etxabe kazetariak goiz partean jazotakoa kontatzen du eguerdian eta arratsaldeko berrien begiratua Deiane Arrietak egiten du iluntzean.



## ‘Harmailatik ’

ASTELEHENERO / **20:30**

### Kirolaren inguruko guztia aztergai astelehenero

Asteburuan izandako partidu, lasterketa eta emaitzak ondo gainbegiratzen ditu Julen Iriondo kazetari oñatiarrak astelehenero. Horren ondoren, sakondu egiten ditu eta horretarako kirolaz asko dakiten lagunak gonbidatzen ditu.

## TELEBERRIAK

### Martitzenean hasi zen GOITBko ‘Txintxaun’ umeendako saioa

Umeek ere euren tartea izango dute aurtengo ikasturtean GOITBn. Martitzen iluntzean hasi zuten etxeko txikienendako *Txintxaun* saioa. Hemendik aurrera, eguaztenero ikusi ahal izango dugu, 20:30ean. Mikel Aranburu oñatiarrak aurkezten du saio hori, eta denetik egoten da: lehiaketa, magia saioa, albaitariaren txokoa...

### ‘Me lo dices o me lo cuentas’ saioa Emmy sarietako finalean

Ameriketako Estatu Batuetako Emmy sarietako finalista dugu ETBko eta Telemadrid-eko *Me lo dices o me lo cuentas* saioa. Sexuaren gaineko saioa da, eta Lorena Berdun sexologoak aurkezten du. Entretenimendurako Saio Onenaren sailean da finalista saio hori. Azaroaren 24an jakinaraziko dituzte zeintzuk diren irabazleak, New Yorken egingo duten jaialdi baten.

### ‘Annapurna: sueño y vacío’ dokumentala saritua izan da

Alberto Iñurrategik Euskal Telebistarentzat egindako *Annapurna: sueño y vacío* dokumentalak Espedizio Film Onenaren saria jaso du Eslovakiako Nazioarteko Mendiko Fimen XI. jaialdian. 20 herrialdetako 45 bat lan aurkeztu zituzten jaialdi horretan. Iñurrategik eta Lafaillek Annapurnara iristeko egindako bidea erakusten du filmak, eta Juanjo San Sebastian mendizaleak egindako gidoia dauka.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Urriaren 17tik urriaren 23ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 17 | ZAPATUA 18 | DOMEKA 19 | ASTELEHENA 20 | MARTITZENA 21 | EGUAZTENA 22 | EGUENA 23 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Sarrera doan<br>14:30 Berriak<br>15:00 Iluntzean<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Astebete<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Soinuz blai<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Astebete<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Soinuz blai<br>23:45 Emisio amaiera | 13:30 Astebete<br>14:00 Soinuz blai<br>14:30 Txintxaun<br>15:00 Mahaingurua: hirugarren adinekoen elkarteak<br>16:00 Sarrera doan<br>16:30 Iluntzean<br>17:00 Emisio amaiera | 13:30 Astebete<br>14:00 Soinuz blai<br>14:30 Txintxaun<br>15:00 Mahaingurua: hirugarren adinekoen elkarteak<br>16:00 Sarrera doan<br>16:30 Iluntzean<br>17:00 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Astebete<br>14:30 Berriak<br>15:00 Soinuz blai<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Harmailatik<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Harmailatik tertulia<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Harmailatik<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Harmailatik tertulia<br>23:45 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Harmailatik<br>14:30 Berriak<br>15:00 Harmailatik tertulia<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Goienan, herriz herri<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Goienan, herriz herri<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Goienan, herriz herri<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Goienan, herrizherri<br>23:45 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Goienan, herriz-herri<br>14:30 Berriak<br>15:00 Goienan, herriz-herri<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br><br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Txintxaun<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Soinuz blai<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Txintxaun<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Soinuz blai<br>23:45 Emisio amaiera | 13:30 Gatza eta berakatza<br>14:00 Txintxaun<br>14:30 Berriak<br>15:00 Soinuz blai<br>15:30 Berriak<br>16:00 Gatza eta berakatza<br>16:30 Emisio amaiera<br><br>19:45 Gatza eta berakatza<br>20:00 Berriak<br>20:30 Sarrera doan<br>21:00 Gaurkoak<br>21:15 Iluntzean<br>21:45 Gatza eta berakatza<br>22:00 Berriak<br>22:30 Sarrera doan<br>23:00 Gaurkoak<br>23:15 Iluntzean<br>23:45 Emisio amaiera |
| 20:30 Astebete | | | 21:15 Harmailatik tertulia | 20:30 Goienan, herriz-herri | 20:30 Txintxaun | 21:15 Iluntzean |

**GOIENA TELEBISTA** / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



*“Gutxiespen sentsazio bat dago euskal idazleekiko, badirudi modernoa ingelesez ateratzen dena dela. Euskal irakurlegoari harrotasun puntu bat falta zaio”.*

**Tere Irastortza** / Euskal Idazleen Elkartea
“ASTEBETE” (2003-10-17)



*“Azkenaldian langabezia gehitu egin da Debagoienan, batez ere Arrasaten. Kooperatibek kontratuak aldatu dituztelako ari da gertatzen hori”*

**Juan Ramon Garai** / ESK-ko Komite Nazionala
“BERRIAK” (2003-10-13)

## TELEBEGI/ Edorta Arana

### *Taxutu*

Telebistak sinesgarritasuna galdu eta entretenimendu huts modura erabiltzen ei dugu, inkestek diotenez. Horrek ez du ekarri informazio bila dabilenak beste medio batzuk kontsumitzea ala behera egitea telebistari eskainitako minutu kopuruak.

Espektakulu hutsa omen den medioaren gaineko kontrola, ordea, ez du boterean dagoenak galdu gura izaten eta, oraingoan, programazioaren irakurketa moralak egitera ere ausartu da (gogoratu: Aznar eta zabor-telebistagintza).

Betikoaren ildotik, *munduan* dagoen desordenuaren eta dekadentziaren erakusleihoa da telebista. Gerra mehatxua, ekonomiaren gorabeherak, hilketak, alderdien arteko ika-mikak, hondamen naturalak, drogak eta amoraltasuna dira telebistan ageri zaizkigun arriskuetako batzuk. Eskerrak erakundeak dauden hankaz gora duguna txukundu eta paranoian jausi ez gaitezen irmotasuna eskaintzeko. Horretarako, beharrezkoa dute telebista, nahiz eta bufoiaren papera jokatzen duten saio kritiko itxurakoak onartu behar izan, legitimitatean irabazi asmoz.

# EHUNKIEN GAIKAKO BILKETA




Baietz etxean erabiltzen ez duzun eta lekua hartzen ari den arropa, oinetakoak, izarak, zinturoiak, mantak... eduki.

PLASTIKOZKO POLTSA ITXIETAN UTZI EHUNKIAK




Edukiontzi zurietan sartuz gero, etxean soberan dituzun ehunki horiek berrerabili edo birziklatzeko balioko dute. Horrez gain, ehun-industriaren kutsadura murrizten lagunduko duzu, ingurumenaren mesederako.

## BILKETA GUNEAK

| | |
|---|---|
| ARRASATE | • Muxibar plazan<br>• Kontzezino kalean<br>• Musakolako aparkalekuan |
| ESKORIATZA | • Gastañaduy kalean (estankoaren alboan) |
| ARETXABALETA | • Gernika plazan |
| LEINTZ-GATZAGA | • Dorletarako bidean (beste edukiontzien alboan) |
| OÑATI | • Olakua auzoko plazan<br>• Errementari plazan |
| BERGARA | • Zubiaurre kalean (zubiaren ondoan)<br>• Matxiategi poligonoan (hilerriko aparkalekuaren ondoan)<br>• Azokan (merkatuko sarreraren ondoan) |
| ANTZUOLA | • Aiherra kalean (Kultur Etxearen atzekaldean) |
| ELGETA | • Berraondokuan |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Tel. 943 79 33 99

# Goienkaria ©

DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate

**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*

**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*

**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*

**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko urriaren 17a


## *Atzeskua*

LEIRE KORTABARRIA

# Alberto Arruti 'Azur'/ Argazkilaria

***Euskal Txokoak* izenpean hainbat erakusketa antolatzen dituzu urtean barrena Bergaran...**

Argazkiak mugitzea gustatzen zait. Argazkiaren negatiboak ez du ezer egiten armairuan sartuta; argazki hori erakutsi egin behar da, banatu. Euskal Herri osotik ibiltzen naiz kamerarekin.

**Zein beste sormen lan egiten duzu, argazkiez gain?**

Argazkiondako markoak ere nik neuk egindakoak dira. Argazki bakoitzaren gaiarekin bat doazen markoak egiten ditut. Adibidez, Anboto mendiaren argazki baten markoan Mariren bi orrazi ipini nituen... Leku bakoitzaren historia hobeto ezagutzen saiatzen naiz markoa egin aurretik. Eta paisaion postalak ere egiten ditut.

**Baina argazki guztiak ez dira paisaienak izaten.**

Ez. Kamera beti aldean daramat, kaleko jendea, txokoak... ateratzeko. Bestalde, hainbat talderekin lankidetzan ibiltzen naiz beti. Adibidez, Itoizko solidarioekin ibili naiz, eta Itoitzen inguruko argazki asko atera ditut. Baita marihuanaren gainekoak ere. Amnistiaren Aldeko Batzordeendako postalak-eta egin izan ditut. Errebindikazioak egitea dut gustuko. Uste dut nork bere neurrian ekarpena egin dezakeela, gauzak aldatzen joan... Eta aldatzen ari direla uste dut, pixkana-pixkana.

**Zure zaletasun hori eta errebindikazioa uztartzea lortu duzu, hortaz.**

Nire lanaren bidez hainbat egoera salatu nahi izaten dut, bai. Azkenaldian Nafarroan ibiltzen naiz sarri. Euskal kultura, han, egoera negargarrian dago, eta gobernuak helburu panfletarioekin bakarrik erabiltzen du. Hangoei animu handia ematen die hemen ere mugitzen ari garela ikusteak.

**Zure naturarekiko maitasuna, ordea, argazkietatik haratago doa. Asko ikasi duzu naturaren gain, ezta?**

Bai; esaterako, landareen gain. Ilargiaren zikloez ere ikasi dut. Adibidez, aurresaten dakit hemendik eta egun batzuetara bitartean egingo duen eguraldia. Tenporena... Hori ipuina da. Ilargiak eta haizearen norabideak agintzen dute. Baina gaur egun, Espainiako gobernuak-eta, Elizak-eta, ez dute jendeak horrelako jakituria izaterik nahi. Diktadura batetik trantsizio garaian gaude, eta oraingo agintariei ere sumatzen zaie hori. Guztia idatzita, *itzulita*... ematen digute.

**Ezkor ikusten zaitut, ordea, hezkuntzari dagokionez...**

Alde on bat dago: euskara ikasgeletan dagoela orain. Nik galdu egin dut nekien euskara, eta ezin dut askorik egin, baina garrantzitsuena da ume guztiek euskaraz egiten dutela txikitatik, eta hemendik 20 urtera euskara askoz hedatuago egongo dela.



**"Nork bere ekarpena egin dezake Euskal Herrian gauzak hobetzeko, eta hobetzen ari dira pixkana-pixkana"**

**"Argazkilaritzaren bidez hainbat egoera salatzen ditut: Itoitz, Nafarroako egoera..."**

**"Gobernuak, Elizak... ez dute nahi hainbat jakintza jendearengana iristerik"**

► *Bergara / 52 urte / Argazkilaria eta musikaria*

## PIPERRAUTSA

### *Paco*

Paco Garcia zinegotzi sozialista da Arrasaten, udal taldeko eleduna. Baita Udalaren ordezkari Mankomunitatean. Eta ibarreko batzarkide da Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Alderdian ere baditu ardurak ibarretik kanpo.

Kordoban jaioa da Paco, baina aspaldi bizi da Arrasaten. Oraintxe, euskaltegian hasi da euskara ikasten. GOITBn ikusi nuen albistearen amaiera, eta zergatietara ez nintzen iritsi baina bai ondoko hau entzutera: "Lehenik lortu nahi nuke euskara ulertzea, baina jarraitzeko asmoa dut, mintzatzeko gai izan arte".

Aldi bertsuan argitaratu da *Aldaketa Hamasei*, Espainiako astekarien dekano *Cambio 16* famatuaren euskal bertsioa. Itzulpena baino areago, eduki ugari du hemen sortua, horretarako baliatuz dozena lagun inguruko erredakzio propioa. Lehen azalak zioen *Euskaraz bizi nahi dut*, Lazkaoko Kilometroen lelo bera, eta ez kasualitatez. Eta editorialaren izenburua ere ondo adierazgarria zen: *Euskara, euskaldun guztion ondarea*.

Bi datu dira bakarrik, baina biak euskararen aldekoak. Agian bihurgunea adierazten dute euskararen ibilbidean, bidelagun berriak hurbiltzen hasi zaizkiola-edo. Behar ere beharko ditu euskarak esparru guztietan lagunak, onik irtengo bada dagoen atakatik. Gizartean oinarria zabalago, orduan aukera hobea indartsu irauteko.

Txapligurik ez, baina poza bai. Paco Garcia euskara ikasten hasi da.

MIKEL IRIZAR




Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51